



Lehiaren  
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca  
de la Competencia

## ZERBITZU JURIDIKOAREN DEKRETU-ZIRRIBORROARI BURUZKO TXOSTENA

### 222-SUST-(2017) LEAren proiektua

#### Laburpena:

|   |    |
|---|----|
| I. Antecedentes .....   | 2  |
| II. Intervención de la administración en los mercados .....   | 3  |
| III. El mercado de los servicios jurídicos .....  | 4  |
| 1. Servicios jurídicos, normativa de contratación y respeto a los principios de libre competencia.....                                    | 4  |
| 2. Descripción .....  | 5  |
| A. Posibles demandantes de servicios.....   | 5  |
| B. Posibles oferentes del servicio .....  | 14 |
| 3. Afectación del Decreto al mercado .....  | 16 |
| A. La denominación “asistencia jurídica pública” .....  | 17 |
| B. La figura del convenio.....  | 17 |
| C. Problemas que generaría la celebración de un contrato .....  | 19 |
| D. La subcontratación .....   | 19 |
| E. La compensación económica .....  | 21 |
| F. Las prerrogativas procesales de la administración y/o los letrados .....   | 23 |
| G. Las prerrogativas del Servicio referidas al fondo del asunto .....   | 25 |
| H. Capacidad de decisión de la administración institucional y los entes locales .....   | 25 |
| IV. Otros mercados afectados .....  | 26 |
| V. Consideraciones a la vista de la eficiencia del gasto público.....   | 28 |
| VI. La inclusión de los principios de buena regulación en el ejercicio de la función de asesoramiento jurídico a través de informes ..... | 29 |
| VII. Conclusiones .....   | 31 |

#### Osoko Bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernandez jauna



2017ko otsailaren 9an, Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) Osoko Bilkurak txosten hau argitaratzea erabaki du, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren Dekretu Zirriborroari buruzkoa.

## I. Aurrekariak

1. 2016ko urriaren 24an, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Araubide Juridikoaren Sailburuordetzak Lehiaren Euskal Agintaritzari (LEA) bideratutako jakinarazpena sartu zen Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez. Haren bitartez, alegazioak egiteko entzunaldia eskaintzen zitzaion LEAri, interesdun gisa eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren Dekretu-proiektuarekin lotuta.

Alegazioen txostena 2016ko azaroaren 7an igorri zen<sup>1</sup>.

Dokumentu horren irakurketari esker, LEAk kasuan kasuko intzidentzia hauteman ahal izan zuen proposatutako neurrien lehiari dagokionez.

Horregatik, LEAk txosten hau igorri du 1/2012 Legeak lehia sustatzeko ematen dion (3.3 eta 10. n artikulua) eskumenarekin lotuta<sup>2</sup>. Euskadiko merkatuetan benetako lehia lortzea da funtzio honen helburua. Horretarako, zigorrak ez diren neurriak hartuko dira, eta, horrelako neurrien esparruan, besteak beste, administrazio publikoekiko harremanak nabarmentzen dira.

2. 2016ko otsailean, LEAk txosten bat igorri zuen Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko Legearen Aurreproiektuari dagokionez (gero, 7/2016 Lege gisa onartu zen)<sup>3</sup>.

Txosten horretan, LEAk Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiak (aurrerantzean, Zerbitzua) eskaintako zerbitzu juridikoak mugatzea gomendatzen da besteak beste, zerbitzu juridikoak beren zerbitzuak modu

<sup>1</sup> LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA. *Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren Dekretu Proiektuari buruzko txostena*, 2016ko azaroaren 7koa.

<sup>2</sup> Otsailaren 2ko 1/2012 Legea, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa (EHAA, 29. zenbakikoa, 2012ko otsailaren 9koa). Hemen eskura daiteke:

[http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/legislacion\\_normativa/es\\_normativ/adjuntos/Ley%201-2012.pdf](http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/legislacion_normativa/es_normativ/adjuntos/Ley%201-2012.pdf).

<sup>3</sup> 7/2016 Legea, ekainaren 2koa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekoa (EHAA, 107. zenbakia, 2015eko ekainaren 7koa). Hemen eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/06/1602438a.shtml>; LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA, *Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko Lege Aurreproiektuari buruzko Txostena*, 2016ko otsailaren 16koa. Hemen eskura daiteke:

[http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es\\_informes/SERVICIO%20JURIDICO%20final1.es.pdf](http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/SERVICIO%20JURIDICO%20final1.es.pdf).



esklusiboan EAEko Administrazio Orokorrari edo Instituzionalari eskaintzen dizkioten erakundeei eskainiz, hau da, merkatuan inolako jardunik ez dutenei eta doan egiten badute.

Era berean, 13.2 artikulua *in fine* idaztea gomendatzen da –zerbitzu juridikoak bere zerbitzuak eskaintzeko kontratatu dituen Auzitegietako abokatuen eta prokuradoreen minutak itundutakoaren arabera eta "bere jarduera gauzatzeko arauak betez"–, 14. artikuluan, Elkargo Profesionalen Legeko (EPL) 4. xedapen gehigarrian eta Lehiaren Defentsarako Legean xedatutakoari jarraiki; horrenbestez, horien ordainsariak zehazten dituen abokatuen jarduera profesionalari buruzko arau oro zuzenbidearen kontrakoa izango litzateke<sup>4</sup>.

## II. Administrazioaren esku-hartzea merkatuetan

3. Administrazio Publikoek modu eraginkorrean bete behar dituzte legeak ezartzen dizkien zerbitzu publikoko helburuak. Horretarako, beren jarduerak eta horiek arautzeko garatzen diren arauak erregulazio onaren printzipioak betetzen dituztela bermatu behar dute.<sup>5</sup>

Administrazioak merkatu baten funtzionamenduan aldaketak eragiten dituztenean, proposatutako neurri murriztailea **beharrezkoa** dela **egiaztatu** behar du, behar bezala frogatutako **merkatuko akats** bat zuzentzeko edo **interes orokorreko** helburu bat lortzeko (hau da, nolabaiteko kausa-ondorio lotura bat frogatu behar da murrizketaren eta bete nahi diren helburuen artean); era berean, hura lortu nahi den helburuarekiko **proporzionala** dela egiaztatu behar da (hau da, kasuan kasuko helburua lortuko dela bermatzeko tresnarik egokiena dela, emaitza bera lortzea ahalbidetzen duten neurri horren ez murriztaileak ez daudelako), baita **diskriminaziorik eragiten ez duela** ere (hau

<sup>4</sup> 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, Elkargo Profesionalen buruzkoa (1974ko otsailaren 15eko BOE, 40. zk.)15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Babesari buruzkoa (2007ko uztailaren 4ko BOE, 159. zk.), gero lege hauek aldatua: abenduaren 22ko 39/2010 Legeak (BOE-A-2010-19703), martxoaren 4ko 2/2011 Legeak (BOE-A-2011-4117) eta ekainaren 4ko 3/2013 Legeak (BOE-A-2013-5940). Testu bateratua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946>.

<sup>5</sup> LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. *Gomendioak herri administrazioei, merkatuen erregulazio eraginkorragoa izateko eta lehia bultzatzeko*. Madril, 2008ko ekainaren 17a. Hemen eskura daiteke: [https://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Guias\\_y\\_recomendaciones.pdf](https://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Guias_y_recomendaciones.pdf); OECD, *Guiding Principles for Regulatory Quality and Performance*, 2005. Hemen eskura daiteke: <http://www.oecd.org/fr/reformereg/34976533.pdf>; OCDE, *Recommendation of the council on regulatory policy and governance* 2012. Hemen eskura daiteke: <http://www.oecd.org/gov/regulatory-policy/49990817.pdf> EUROPEAN COMMISSION *Better Regulation Guidelines*, 2015, Estrasburgo, 2015eko maiatzaren 19a, SWD(2015) 111 final. Hemen eskura daiteke: [https://ec.europa.eu/info/files/better-regulation-guidelines\\_en](https://ec.europa.eu/info/files/better-regulation-guidelines_en).



da, nazionalitatearen edo establezimenduaren edo egoitza sozialaren arabera tratatu desberdina edo kaltegarria eskaintzen ez duela)<sup>6</sup>.

Txosten honetan ikusiko dugun moduan, Dekretu-zirriborroaren edukiak ez du administrazioaren "esku-hartzerik" egiten zerbitzu juridikoen merkatuan (haren funtzionamendua erregulatuz edo kontrolatuz), izaera publikoko eragile berri baten merkatuko "partaidetza" proposamena egiten baitu.

Jarraian, Dekretu-zirriborroan proposatutako neurriak aztertuko ditugu.

### III. Zerbitzu juridikoen merkatua

#### 1. Zerbitzu juridikoak, kontratazio-araudia eta lehia askeko printzipioen errespetua

4. Indarrean den Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginean (SPKLTB), zerbitzu juridikoak II. Eranskineko 21. kategoriako zerbitzu-kontratuak dira (10. artikulua). Hori dela-eta, publizitatea eta lehia bermatuko duten prozeduren bitartez esleitu behar dira oro har, horiek botere esleitzailerik batek gauzatu behar dituztenean eta, hein txikiagoan, SPKLTBko 3.1. artikuluan jasotzen den eta botere esleitzailerik ez den sektore publikoko erakunde bat denean. Dena den, horiek ez dute Europako publizitateari behar<sup>7</sup>.

2014/24 Zuzentarauan, zerbitzu juridiko horietako batzuk aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira (10 d) artikuluko i) eta ii atalak); benetakoa edo oso posiblea den auzi batekin oso lotuta dauden aholkularitza-zerbitzuak eta

<sup>6</sup> Administrazio publikoaren administrazio-prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeren 129. artikuluan xedaturiko erregulazio ekonomiko eraginkorraren printzipioei jarraiki. (BOE, 236. zenbakia, 2015eko urriaren 2koa). Testu bateratua hemen eskura daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2015-10565>.

<sup>7</sup> Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua (BOE, 276 zk., 2011ko azaroaren 16koa), zehazki, honako hauek aldatu dutena: 17/2012 legeak, abenduaren 27koak, (BOE-A-2012-15651), 4/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, otsailaren 22koak (BOE-A-2013-2030), 8/2013 Legeak, ekainaren 26koak (BOE-A-2013-6938), 8/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, ekainaren 28koak (BOE-A-2013-7063), 10/2013 legeak, uztailaren 24koak (BOE-A-2013-8083), 11/2013 legeak, uztailaren 26koak (BOE-A-2013-8187), 14/2013 legeak, irailaren 27koak (BOE-A-2013-10074), , 20/2013 legeak, abenduaren 9koak (BOE-A-2013-12888), 25/2013 legeak, abenduaren 27koak (BOE-A-2013-13722), 1/2014 Legegintzako Errege Dekretuak, urtarrilaren 24koak (BOE-A-2014-747), 13/2014 legeak, uztailaren 14koak (BOE-A-2014-7468), 2/2015 legeak, martxoaren 30ekoak (BOE-A-2015-3443), 25/2015 legeak, uztailaren 28koak (BOE-A-2015-8469), 31/2015 legeak, irailaren 9koak (BOE-A-2015-9735), 10/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, irailaren 11koak (BOE-A-2015-9801), 40/2015 legeak, urriaren 1ekoak (BOE-A-2015-10566). Testu bateratua hemen eskura daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-17887>.



epaiketako defentsa-zerbitzuak izango lirateke<sup>8</sup>. Gainerako zerbitzu juridikoek 74. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako prozedura sinplifikatua bete behar dute, eta hark Europako publizitatea gaineratzen du (ikus 116. kontuan hartuzkoa).

Zuzentaraua baztertzeak ez du SPKLTB ordezkatzeko moduko ondorio zuzenik, araudi nazionala ez baita haren kontrakoa (ez dago horrelako desadostasunik, lehendik are zorrotzagoa den beste txertaketa bat baitago); era berean, botere esleitzzaileek ez dute, partikularren kontra, epean desagertu ez den Zuzentaruaren arau baten alde alegatuko. Bestalde, 74 eta 75. artikuluek modu zuzenean eragiten dute kanporatu gabeko zerbitzu juridikoetan.

Kontratuen Lege berriak Zuzentaruaren 10. artikuluko eskusioak gaineratuko dituela aurreikusten da, baina, bitartean, SPKLTB eta Dekretuaren zirriborroa bete behar dira, eta, ikusiko dugun moduan, ez da hori gertatzen.

5. Dena den, Dekretu-zirriborro honek arautzen dituen negozio juridikoak merkatu irekian zerbitzuak eskaintzeko erreminta bat dira, eta lehiaren araudia bete behar dute, horiek kontratu publikoen arauditik kanpo egon ala ez.

## 2. Deskribapena

### A. Zerbitzuen ustezko eskatzaileak

6. 7/2016 Legearen 2. artikuluari jarraiki, Dekretu-zirriborroak bere zerbitzuen hiru hartzaile-kategoria bereizten ditu 3. artikuluan:

"a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren eremua, batez ere Eusko Jaurlaritzari eta, hala badagokio, Administrazio orokorraren gainerako sail eta erakundeei dagokienez<sup>9</sup>.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio instituzionalaren eremua, laguntza juridikoaren barneko eginkizunak hornitzeko erabakimen osoa edo partziala eurentzat erreserbatuta ez duten organismo autonomoei eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoei dagokienez.

c) Beste eremu batzuk; Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 2.4 artikuluan aurreikusten direnak, hala nola, Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuei eta, hala badagokio, merkataritza-sozietateei,

<sup>8</sup> Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena. EBAO L 94/65, 2014ko martxoaren 28koa. Hemen eskura daiteke: <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32014L0024&from=EN>.

<sup>9</sup> Alderdi horrek lehiarekin loturarik ez izatea gerta badaiteke ere, ez dugu ulertzen zerbitzuak "Gobernuarekin berarekin" eta, "hala badagokio", hura osatzen duten sailekin eta organoekin duen "lehentasunezko" harremanaren arteko desberdintasuna.



fundazio publikoei, partzuergoei eta Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duten gainerako erakundeei laguntza juridikoa ematea. Laguntza juridiko hori kasuan kasuko lankidetzahitzarmenaren bitartez eskainiko da."

7. Arauak eragindako zerbitzuen ustezko subjektu eskatzaileen hurbilketa bat egitearren, EAEko sektore publikoa osatzen duten erakundeak eta elkarte partaidetuak jasotzen dira jarraian<sup>10</sup>.

| EAE-KO SEKTORE PUBLIKOA ETA ERAKUNDE PARTAIDETUAK                              | 2014KO NEGOZIO-PLANA | NEGOZIO-ZIFREN KONTZEPTUA   |
|--|----------------------|---|
| <b>1. EAEko sektore publikoa</b>   |                      |   |
| 1.1. EAEko Administrazio Orokorra  |                      |   |
| 1.2. Administrazio instituzionala: Erakunde autonomoak                         |                      |   |
| 1.2.1. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakunde                                  | 0,00 €               |   |
| 1.2.2. EHAA - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde                           | 0,00 €               |   |
| 1.2.3. Osalan - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde              | 0,00 €               |   |
| 1.2.4. Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua                                      | 0,00 €               |   |
| 1.2.5. Eustat - Euskal Estatistika Erakunde                                    | 0,00 €               |   |
| 1.2.6. Lehiaren Euskal Agintaritza   | 0,00 €               |   |
| 1.2.7. HABE - Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde            | 0,00 €               |   |
| 1.2.8. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia                              | 0,00 €               |   |
| 1.2.9. Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua                             | 0,00 €               |   |
| 1.3. Administrazio instituzionala: Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak      |                      |   |
| 1.3.1. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (Elankidetz)                 | 0,00 €               |   |
| 1.3.2. EEE - Energiaren Euskal Erakunde  | 2.898.518,00 €       | Eguzki-paneletako eta plaka fotovolta koetako elektrizitatearen salmenta                      |
| 1.3.3. Finantzen Euskal Institutukoak  | 3.001.150,00 €       | Enpresei emandako maileguen interesetat k lortutako diru-sarrerak                             |
| 1.3.4. Euskal Irrati Telebista (EITB)  | 0,00 €               | Irrati- eta telebista-zerbitzuak  |
| 1.3.5. Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia             | 0,00 €               | Unibertsitateko kalitatearen ziurtagiria  |
| 1.3.6. Etxepare Euskal Institutua  | 0,00 €               | Euskararen eta euskal kulturaren sustapena eta hedapena EAEt k kanpo                          |
| 1.3.7. Osakidetza - Euskal osasun zerbitzua                                    | 2.473.228.674,00 €   | Eskainitako zerbitzuak  |
| 1.3.8. Euskal Trenbide Sarea (ETS)   | 16.687.411,00 €      | Trenbide-azpiegituren ustiapena / obra eta proiektuen kudeaketa-aginduak (metroa, tranbia...) |
| 1.3.9. Uraren Euskal Agentzia (URA)  | 4.528.619,00 €       | Uraren, Isurketak kontrolatzeko... kanona   |
| 1.4. Sozietate publikoak   |                      |   |
| 1.4.1. EEE taldea  |                      |   |
| 1.4.1.1. Energia eta Meatzeen Aurrezte eta Hazkuntzarako Aztertegia SA (CADEM) | 15.153,00 €          | Energiaren aurrezte- eta eraginkortasun-zerbitzuak  |
| 1.4.1.2. Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi SA (SHESA)                       | 0,00 €               | Hidrokarburo likidoen ikerketa eta ustiapena  |
| 1.4.1.3. Sologoengo Zentral Hidroelektr koa SA                                 | 128.801,00 €         | Ekoizpen elektrikoa   |

<sup>10</sup> EUSKO JAURLARITZA, *Eusko Jaurlaritzaren sailak eta elkarteak*. 2017. Hemen eskura daiteke: <http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/departamentos-y-entidades-del-gobierno-vasco/#3854> eta EUSKO JAURLARITZA. Ogasun eta Finantza Departamentua. *EAEko Sektore Publikoa eta erakunde partaidetuak*, 2014. Hemen eskura daiteke: [http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-kontupub/es/contenidos/informacion/sector\\_publico\\_cae\\_2014/es\\_def/index.shtml](http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-kontupub/es/contenidos/informacion/sector_publico_cae_2014/es_def/index.shtml).



|  |                 |  |
|--|-----------------|--|
| 1.4.1.4. Hidroeléctrica Harana-Kontrasta SA                                  | 313.840,00 €    | Ekoizpen elektrikoa  |
| 1.4.1.5. Biscay Marine Energy Platform SA (BIMEP)                            | 0,00 €          | Itsas energia berriztagarria   |
| <b>1.4.2. SPRI taldea</b>  |                 |  |
| 1.4.2.1. Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SA (SPRI)                      | 317.039,00 €    | Enpresa-, industria- eta teknologia-sustapeneko zerbitzuak eta salmentak   |
| 1.4.2.2. Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea                             | 7.090.328,00 €  | Errentamenduak eta eskainitako zerbitzuak  |
| 1.4.2.3. Arabako Teknologia Parkea SA  | 971.790,00 €    | Salmentak eta eskainitako zerbitzuak   |
| 1.4.2.4. Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea SA                        | 3.311.281,00 €  | Lursail edo lokalen salmentak, eta zerbitzu- eta errentamendu-emateak  |
| 1.4.2.5. Arabako Eraberrikuntza Industrialdea SA (CEIA)                      | 175.848,00 €    | Salmentak eta eskainitako zerbitzuak   |
| 1.4.2.6. Euskal Herr ko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa IKEKS SA               | 2.048.754,00 €  | Eskainitako zerbitzuak, administrazioa eta arrisku-kapitaleko funtsen kudeaketa  |
| 1.4.2.7. Sprilur SA  | 3.382.826,00 €  | Zerbitzu, lurzoru eta instalazio industrialen prestazioa eta salmentak   |
| 1.4.2.8. Abanto-Zierbenako Industrialdea SA                                  | 42.331,00 €     | Lokalen salmenta eta errentamenduen diru-sarrerak  |
| 1.4.2.9. Arabako Industrialdea SA  | 871.784,00 €    | Lokalen salmenta eta errentamenduak  |
| 1.4.2.10. Arratiako Industrialdea SA   | 693.152,00 €    | Lokalen salmenta eta errentamenduak  |
| 1.4.2.11. Beterri Kostako Industrialdea SA (BEKISA)                          | 472.663,00 €    | Lokalen salmenta eta errentamenduak  |
| 1.4.2.13. Bidasoa Oarsoko Industrialdea SA                                   | 2.201.463,00 €  | Lokalen salmenta eta errentamenduak  |
| 1.4.2.14. Bizkaia Sortaldeko Industrialdea SA                                | 4.413.279,00 €  | Lokalen salmenta eta errentamenduak  |
| 1.4.2.15. Busturialdeko Industrialdea SA                                     | 0,00 €          | Lokalen salmenta eta errentamenduak  |
| 1.4.2.16. Deba Bailarako Industrialdea SA                                    | 345.889,00 €    | Lokalen salmenta eta errentamenduak  |
| 1.4.2.17. Goierri Beheko Industrialdea SA (GOBEISA)                          | 4.200,00 €      | Lokalen salmenta eta errentamenduak  |
| 1.4.2.18. Lanbarren Parke Logistikoa SA                                      | 1.728.335,00 €  | Lokalen salmenta eta errentamenduak  |
| 1.4.2.19. Tolosaldeko Apattaerreak Industria Lurra SA (TAILSA)               | 328.368,00 €    | Lokalen salmenta eta errentamenduak  |
| 1.4.2.20. Urolako Industrialdea SA   | 492.450,00 €    | Lokalen salmenta eta errentamenduak  |
| <b>1.4.3. EITB taldea</b>  |                 |  |
| 1.4.3.1. Euskal Telebista SA (ETB)   | 12.599.291,00 € | Publizitatea, programen salmenta, ekipoen alokairuak, kus-entzunezko zerbitzuen prestazioa, hirugarrenei irudi-eskubideak lagatzea |
| 1.4.3.2. Eusko Irratia SA  | 3.206.872,00 €  | Publizitatea   |
| 1.4.3.3. Gasteiz Irratia SA  | 542.353,00 €    | Publizitatea   |
| 1.4.3.4. Eitbnet SA  | 2.864.562,00 €  | Internet-eduki bidez eskainitako zerbitzuak  |
| <b>1.4.4. EUSKO TRENBIDEAK taldea</b>  |                 |  |
| 1.4.4.1. Eusko Trenbideak SA (Euskotren)                                     | 25.443.593,00 € | Tren, errepide eta tranbia bidezko bidaiariak  |
| 1.4.4.2. Euskotren Participaciones SA  | 224.996,00 €    | 4 ibaietako tranbia-eraikuntza   |
| <b>1.4.5. Beste batzuk</b>   |                 |  |
| 1.4.5.1. Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia SA                          | 0,00 €          | Euskadi nazioko eta nazioarteko merkatuetan sustatzea  |
| 1.4.5.2. NEIKER - Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Institutua SA | 1.370.120,00 €  | Nekazaritzako berrikuntza, ingurumena, nekazaritzako berrikuntzarako laborategia, ingurumen-laborategia                            |
| 1.4.5.3. Euskad ko Etxebizitza eta Lurra SA (VISESA)                         | 46.746.776,00 € | Etxebizitza-sustapenen eta lokal komertzialen salmenta   |
| 1.4.5.4. Alokabide SA  | 27.862.574,00 € | Bizigune programako eta sozietatearen parkeko errentamenduak eta tanteoak  |
| 1.4.5.5. Itelazpi SA   | 12.700.338,00 € | Irrati- eta telebista-seinaleak hedatzeko eta garraiatzeko zerbitzuak  |
| 1.4.5.6. Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SA (EJIE)                  | 68.451.230,00 € | Eusko Jaurlaritzari, Osakidetza, Izenperi eta beste sozietate publiko batzuei informatika-zerbitzuak eskaintzea                    |
| 1.4.5.7. Euskad ko Orkestra SA   | 1.266.298,00 €  | Kontzertuak, jaialdiak, abonamenduak, grabaketak, CDak...  |
| 1.4.5.8. Osatek SA   | 20.731.296,00 € | Euskal osasun- eta gizarte-sistemari laguntzeko zerbitzuak, goi-teknologia, irudi bidezko diagnostikoa, telelaguntza erabiliz      |
| 1.4.5.9. Euskad ko Kirol Portua SA   | 1.590.293,00 €  | Eusko Jaurlaritzaren agindu-kanona, amarradura eta lokalen alokairua, erregai-salmenta, joan-etorriak                              |
| 1.4.5.10. Zumaiako Kirol Portua SA   | 179.000,00 €    | Amarradura eta lokalen alokairua, erregai-salmenta, joan-etorriak  |





|  |                 |  |
|--|-----------------|--|
| 1.4.5.11. IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa SA  | 1.832.742,00 €  | Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren kudeaketa-agindua  |
| 1.5. EAEko Sektore Publikoko fundazioak  |                 |  |
| 1.5.1. HAZI Fundazioa  | 5.321.363,00 €  | Abeltzain, harategi eta pentsuen kuotak, Eusko Label identifikagarrien salmenta, kalitate-ziurtagiriak, azoketako partaidetza, aholkularitza |
| 1.5.2. ELIKA - Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa   | 0,00 €          | Nekazaritzako elikagaien segurtasun arloko informazioa, aholkularitza eta sustapena.   |
| 1.5.3. Euskadi Kirola Fundazioa (BAT Basque Team)  | 537.437,00 €    | Euskal kirola nazioarteko goi-lehiaketan sustatzea. Babesleak.   |
| 1.5.4. Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa (EGO)   | 19.397,00 €     | Sarrerren salmenta   |
| 1.5.5. Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia Fundazio Pribatua (Musikene)                                      | 486.988,00 €    | Ikasleen kuotak  |
| 1.5.6. Osasun Berrikuntza eta Ikerketaren Euskal Fundazioa (BIOEF)   | 281.628,00 €    | Ikerketa-proiektuak  |
| 1.5.7. Zahartzeari buruzko Ikerketa Zentro Nazionala - ZIZN  | 0,00 €          | Ikerketa   |
| 1.6. EAEko Sektore Publikoko Partzuergoak  |                 |  |
| 1.6.1. Haurreskolak  | 0,00 €          | Haurtzaindegiak  |
| 2. Partaidetza publiko gehien duten eta administrazio bakar baten sektore publikoan gaineratuta ez dauden erakundeak |                 |  |
| 2.1. Merkataritza-sozietateak  |                 |  |
| 2.1.1. EAEko Administrazio Orokorrek zuzenean partaidetuak   |                 |  |
| 2.1.1.1. Aberekin SA   | 3.222.000,00 €  | Zezenaren semen-salmenta eta eskaintako zerbitzuak   |
| 2.1.1.2. Bilbao Exhibition Centre SA (BEC)   | 12.549.000,00 € | Lehiaketa bakoitzeko eskaintako zerbitzuak   |
| 2.1.1.3. Ekarpn SPE SA   | 5.612.335,00 €  | Enpresei emandako partaidetza-maileguren dibidenduak eta interesak   |
| 2.1.1.4. SOCADE - Euskadiko Garapenerako Kapitaleko Sozietatea SA  | 0,00 €          |  |
| 2.1.1.5. Sestao Berri 2010 SA  | 23.795,00 €     | Udal-etxebizitzaren kudeaketa  |
| 2.1.1.6. San Mamés Barria SL   | 250.000,00 €    | Zelaiaren errentamendua  |
| 2.1.1.7. Berroeta Aldamar SL   | 0,00 €          | Balenciaga Museoa  |
| 2.1.1.8. Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa SA  | 28.849,00 €     | Tabakalera   |
| 2.1.1.9. Donostia Zinemaldia SA  | 969.575,00 €    | Ondasun eta zerbitzuen salmenta, sarrerak  |
| 2.1.1.10. Donostiako Musika Hamabostaldia SA   | 1.113.564,00 €  | Sarrerak, babesleak, publizitatea  |
| 2.1.1.11. Inmobiliaria Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao SL  | 0,00 €          | Guggenheim museoko orubea bereganatu eta izatea  |
| 2.1.1.12. Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao SL  | 0,00 €          | Obra artistikoen erosketa eta ustiapena, eta erakusketen antolaketa  |
| 2.1.1.13. Gasteizko Abiadura Handia SA   | 0,00 €          | Gasteizko trenbide-sarearen birmoldaketa, AVE dela eta   |
| 2.1.1.14. Bilbao Ría 2000 SA   | 5.587.254,00 €  | Basurto-Olabeaga, Ametzola   |
| 2.1.1.15. CTV - Gasteizko Garraio Zentroa SA   | 1.840.050,00 €  | Errentamendu eragileak (salgaien trafikoa)   |
| 2.1.1.16. Ortzibia SL  | 0,00 €          | Hondarrikoko aireportuaren sustapena   |
| 2.1.1.17. Bilboko Aireportuaren Sustapen Elkarte SA (BILBAO AIR)   | 0,00 €          | Bilboko aireportuaren sustapena  |
| 2.1.1.18. Irungo Aduana Guneko Elkarte Sustatzailea SA (ZAISA)   | 2.544.803,00 €  | Eraikinen salmenta, errentamenduen diru-sarrerak eta eskaintako zerbitzuak   |
| 2.1.1.19. Vía, Gasteizko Aireportuaren Sustapena SA  | 209.354,00 €    | Eragiketa bereziak   |
| 2.1.2. EEEK eta haren menpeko sozietateak partaidetuak   |                 |  |
| 2.1.2.1. Bioartigas SA   | 551.098,00 €    | Energia elektrikoa: biogas-planta eta zentral hidroelektrikoa  |
| 2.1.2.2. Biosanmarkos SA   | 9.160,00 €      | San Markos zabortegean instalatutako biogas-plantan sortutako energia elektrikoa   |
| 2.1.2.3. Biosasieta SA   | 101.991,00 €    | Sasieta zabortegean instalatutako biogas-plantan sortutako energia elektrikoa eta orube fotovoltaikoaren instalazioa                         |
| 2.1.2.4. Errenteriako Zentral Hidroelektrikoa SA   | 101.892,00 €    | Planta hidroelektrikoa sortutako energia elektrikoa eta orube fotovoltaikoaren instalazioa   |
| 2.1.2.5. Aprobetxamendu Energetikorako Biogardegui Sozietatea SA   | 93.081,00 €     | Gardeleguiko biogas-plantan sortutako energia elektrikoa   |





|  |                 |   |
|--|-----------------|---|
| 2.1.2.6. Zazpiterri SA   | 244.655,00 €    | Ekoizpen elektrikoa   |
| 2.1.2.7. Bilbao Exhibition Centre Solar AIE                          | 52.813,00 €     | Eguzki-instalazioaren errentamendua haren bezero bakarrari, Bi bao Exhibition Centerri  |
| <b>2.1.3. SPRIK eta haren menpeko sozietateek partaidetuak</b>       |                 |   |
| 2.1.3.1. Ezkerraldeko Enpresak Garatzeko Zentroa SA (CEDEMI)         | 0,00 €          | Enpresa-jarduera berrien sustapena  |
| 2.1.3.2. Arrasateko Enpresen eta Berrikuntzaren Zentroa SA (SAIOLAN) | 341.914,00 €    | Eskainitako zerbitzuak eta prestakuntza enpresa-jarduera berrientzat  |
| 2.1.3.3. BIC Gipuzkoa Berrilan SA                                    | 62.156,00 €     | Eskainitako zerbitzuak eta prestakuntza enpresa-jarduera berrientzat  |
| 2.1.3.4. Burtzeña Enpresa Parkea SA                                  | 0,00 €          | Konplexu industrialen eraikuntzaren sustapena eta haren kudeaketa   |
| 2.1.3.5. Garaia Berrikuntza Poloa S.Koop.                            | 412.165,00 €    | Errentamenduak eta eskainita beste zerbitzu batzuk  |
| 2.1.3.6. Urdulizko Industrialdea SA                                  | 0,00 €          | Jarduera ekonomikoaren sustapena  |
| 2.1.3.7. Ibar Zaharra SA   | 3.581,00 €      | Enpresa-parkeko lursail-salmenta  |
| 2.1.3.8. Seed Gipuzkoa AKS, Erregimen Sinplif katukoa SA             | 0,00 €          | Kapitaleko partaidetza tenporalak, finantza eta higiezinaren arlokoak ez diren enpresen lehen fasean  |
| <b>2.1.4. Beste erakunde batzuek partaidetuak</b>                    |                 |   |
| 2.1.4.1. Vitoria Integrated Air Services SA (VIAS)                   | 266.653,00 €    | Kargarekin lotutako aireportu-zerbitzuak  |
| 2.1.4.2. Lekunberriko Esnegintza Institutua SA                       | 38.498,00 €     | Instalazioak erabiltzeko lagapen-kontratua EAEko eta Nafarroako behi- eta ardi-esne ekoizleen elkartearekin   |
| 2.1.4.3. Hazilur Enpresen Sustapena SA                               | 140.256,00 €    | Enpresen sustapena, horien kapitaleko partaidetza tenporalaren bitartez   |
| 2.1.4.4. Neikertek SL  | 0,00 €          | Kudeaketa- eta garapen-zerbitzuak NEIKERen I+G+b esparruan sortutako jarduerak garatzen dituzten enpresentzat   |
| 2.1.4.5. Vakunek SL  | 215.525,00 €    | Biozientzien, bioteknologiaren, animalien osasunaren eta immunologiaren esparruetako kerketa-jarduerak  |
| 2.1.4.6. Izenpe Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa SA                    | 2.639.593,00 €  | Euskal sektore publ koarentzako komun kazioetan segurtasun-zerbitzuak, bai teknikoak bai administratiboak, teknika eta baliabide elektronikoa, informatikoa eta telematikoen bidez. |
| 2.1.4.7. Metro Bi bao SA   | 58.955.000,00 € | Bidaia-tituluak, creditrans eta barik   |
| <b>2.2. Berezko nortasun juridikorik gabeko funtsak</b>              |                 |   |
| <b>2.2.1. EAEko Administrazio Orokorrek zuzenean partaidetuak</b>    |                 |   |
| 2.2.1.1. Ezten Arrisku Kapitaleko Funtsa (AKF)                       | 1.040.371,00 €  | Kapitaleko partaidetza tenporalak, finantza eta higiezinaren arlokoak ez diren enpresen lehen fasean  |
| 2.2.1.2. Elkano XXI, Arrisku Kapitaleko Funtsa                       | 696,00 €        | Kapitaleko partaidetza tenporalak, finantza eta higiezinaren arlokoak ez diren enpresen lehen fasean (goi-teknologiaren esparruan batez ere)  |
| 2.2.1.3. Ekintzaile XXI Arrisku Kapitaleko Funtsa                    | 3.329,00 €      | Kapitaleko partaidetza tenporalak, finantza eta higiezinaren arlokoak ez diren enpresen lehen fasean (ETE berritzaileen esparruan batez ere)  |
| 2.2.1.4. Lanpar 2013, Arrisku Kapitaleko Funtsa                      | 3.102,00 €      | Kapitaleko partaidetza tenporalak, finantza eta higiezinaren arlokoak ez diren enpresen lehen fasean (enpresen kapitaleko langileen partaidetza errazten dutenetan batez ere)       |
| 2.2.1.5. Basque Arrisku Kapitaleko Funtsa                            | 62.083,00 €     | Kapitaleko partaidetza tenporalak, finantza eta higiezinaren arlokoak ez diren enpresen lehen fasean (ekintzailetza-enpresetan batez ere)   |
| <b>2.2.2. Beste erakunde batzuek partaidetuak</b>                    |                 |   |
| 2.2.2.1. Suztapen, Arrisku Kapitaleko Funtsa                         | 4.970,00 €      | Kapitaleko partaidetza tenporalak, finantza eta higiezinaren arlokoak ez diren enpresen lehen fasean (finkatuta edo garapen-fasean dauden enpresetan batez ere)                     |
| <b>2.3. Fundazioak</b>   |                 |   |
| <b>2.3.1. EAEko Administrazio Orokorrek zuzenean partaidetuak</b>    |                 |   |
| 2.3.1.1. FICOPA Fundazioa  | 0,00 €          | Mugako azoka-eremuaren sustapena  |
| 2.3.1.2. Gizalab Fundazioa, Gizarte                                  | 0,00 €          | Gizarteratzea, integrazioa, gizarte-zerbitzuak eta  |



|   |                 |   |
|---|-----------------|---|
| Polit karen arloan Berrikuntza Bultzatzeko Zentroa  |                 | aktibazioa  |
| 2.3.1.3. Donostia International Physics Center (DIPC)   | 0,00 €          | Oinarrizko fisikaren esparruko garapen teknologikoko eta ikerketa zientifikoko jarduerak  |
| 2.3.1.4. Ikerbasque Fundazioa   | 0,00 €          | Euskal zientzia-sistema indartzea, senior kerlariak txertatuz.  |
| 2.3.1.5. Biofisika Bizkaia Fundazioa  | 11.966,00 €     | Ikerketa-zerbitzuak eskaintzeagatik lortutako diru-sarrerak   |
| 2.3.1.6. Gern ka Gogoratz Fundazioa   | 0,00 €          | Bakearen aldeko ikerketa-zentroa  |
| 2.3.1.7. Euskad ko Filmategia Fundazioa   | 65.688,00 €     | Euskal ondare zinematografikoa kontserbatzea, berreskuratzea, kertzeta eta zabaltzea. Euskal zinemaren kongresua, ikus-entzunezko eskubideen lagapena |
| 2.3.1.8. Gern kako Bakearen Museoa Fundazioa  | 12.828,00 €     | Museoko art kuluen salmenta   |
| 2.3.1.9. Ekain Fundazioa  | 0,00 €          | Ekaineko ("Ekain Berri") errepl karen eta Zestoako historiaurreko museoaren zuzendaritza, kudeaketa, mantenua eta sustapena.                          |
| 2.3.1.10. Eresbil Fundazioa - Mus karen Euskal Artxiboa   | 0,00 €          | Euskal ondare musikala biltzea, kontserbatzea, babestea eta hedatzea  |
| 2.3.1.11. Donostia 2016 Fundazioa   | 15.984,00 €     | Merchandising-salmenta  |
| 2.3.1.12. Cristóbal Balenciaga Fundazioa  | 39.685,00 €     | Eremuen alokairua, bisitak, katalogoen salmenta   |
| 2.3.1.13. Jose Miguel Barandiaran Fundazioa   | 889,00 €        | Obraren hedapena. Hitzaldiak, argitalpenak  |
| 2.3.1.14. Berrikuntza Soziosanitariarako Euskal fundazioa (Etorbizi)  | 0,00 €          | Desgaitasun, menpekotasun, zahartze eta kronikotasun arloko esku-hartze soziosanitarioa hobetzeko ereduak diseinatzeko kerketa.                       |
| 2.3.1.15. Fundación Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos-Gipuzkoa  | 0,00 €          | Osasun-zentroei odola eta giza ehunak donatzea eta hornitzea  |
| <b>2.3.2. Beste erakunde batzuek partaidetuak</b>   |                 |   |
| 2.3.2.1. Achucarro Basque Center for Neuroscience Fundazioa   | 0,00 €          | Neurozientzia-ikerketa, EHUren laguntzarekin  |
| 2.3.2.2. BCMATERIALS Fundazioa - Basque Center for Materials, Application and Nanostructures                                      | 0,00 €          | Materialen zientzia arloko kerketa.   |
| 2.3.2.3. Basque Center For Macromolecular Design And Engineering-Polymer Fundazioa  | 7.500,00 €      | Polimeroen ikerketa-zentroa   |
| <b>2.4. Partzuergoak</b>  |                 |   |
| 2.4.1. ESS Bilbao - Europako Espalazio bidezko Neutroien Iturriaren Espainiako Egoitza Eraiki, Hornitu eta Ustiatzeko Partzuergoa | 130,00 €        | Europako Espalazio bidezko Neutroien Iturriaren Proiektua Prestatzeko Faserako Partzuergoa (ESS Bilbao Partzuergoa)                                   |
| 2.4.2. Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalerako Partzuergoa   | 0,00 €          | Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalerako Planaren garapena  |
| 2.4.3. Bizka ko osabidezko hezkuntza eta okupazio-heziketako partzuergoa  | 0,00 €          | Bizkaiko Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalerako Planaren garapena  |
| 2.4.4. Lanbide Heziketako Eragina eta Aurrerabiderako Partzuergoa (Gasteizen eta Araban)  | 0,00 €          | Lanbide-hez ketaren sustapena Araban  |
| 2.4.5. Miramar Jauregia Partzuergoa   | 541.013,00 €    | Eskainitako zerbitzuak  |
| 2.4.6. Gazteen Aterpetxeen Presentziarako eta Sustapenerako Partzuergoa   | 120.501,00 €    | Eskainitako zerbitzuak  |
| 2.4.7. Bizka ko Garraio Partzuergoa (COTRABI)   | 86.107.260,00 € | Bidaia-titulak, creditrans eta bar k  |
| 2.4.8. Gipuzkoako Garraio Agintaritza   | 392.097,00 €    | Mugi txartelen salmenta   |
| <b>2.5. Irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk</b>  |                 |   |
| 2.5.1. EAEko Administrazio Orokorrak zuzenean partaidetuak  |                 |   |
| 2.5.1.1. Akitania-Euskadi Euroeskualdea   | 0,00 €          | Euroeskualdea   |
| 2.5.1.2. Pirinioetako Lan Komunitatearen Partzuergoa  | 0,00 €          | Mugaz haraindiko lankidetzeta   |
| 2.5.1.3. Bilbao Metropolitarr Birbizteko Elkarte (Bilbao Metropoli-30)  | 0,00 €          | Biziberritzea   |
| 2.5.1.4. Biodonostia Osasun Ikerketa Institutua   | 671.775,00 €    | Entsegu klinikoak, diagnost ko molekularra  |
| 2.5.1.5. Biocruces Osasun Ikerketako Institutua   | 63.894,00 €     | Eskainitako zerbitzuak  |
| 2.5.1.6. Kron kgune, Kron kotasunari buruzko  | 0,00 €          | Kron kotasunari buruzko ikerketa  |



|   |                  |   |
|---|------------------|---|
| Ikerketarako Nazioarteko Bikaintasun Zentroa  |                  |   |
| 2.5.1.7. Geogarapen, Euskal Kostaldeko Geoparkea Kudeatzeko Elkartea                  | 121.081,00 €     | Geoparkeko bisita gidatuetarako sarrerak  |
| <b>2.5.2. Beste erakunde batzuek partaidetuak</b>                                     |                  |   |
| 2.5.2.1. Nanogune - Nanozientzien esparruko Ikerketa Kooperatiboko Zentroa            | 298.097,00 €     | Ikerketa-zerbitzuak eskaintzeagatik lortutako diru-sarrerak   |
| 2.5.2.2. Parkeak E karteak - Euskadiko Parke Teknologikoen Sarea                      | 0,00 €           | Parke teknologikoen sarea   |
| 2.5.2.3. Unired Elkartea  | 0,00 €           | Ikus-entzunezko seinalearen hedapenerako sare-eragileen eta telekomunikazioen azpiegitura-kudeatzaileen e karteak (gehienak erakunde publikoak)   |
| 2.5.2.4. Irrati eta Telebista Autonomikoen Erakunde edo Entitateen Federazioa (FORTA) | 7.097.749,00 €   | Kuota arruntak eta eskaintako zerbitzuak  |
| 2.5.2.5. BC3 Basque Centre for Climate Change-Klima Aldaketa Ikergai                  | 0,00 €           | Ikerketa, hedapena eta prestakuntza   |
| 2.5.2.6. BCAM Elkartea - Basque Center for Applied Mathematics                        | 9.182,00 €       | Matematika aplikatuen eta konputazioaren bikaintasunezko ikerketa   |
| 2.5.2.7. CBCL - Basque Center on Cognition, Brain and Language                        | 115.915,00 €     | Bazkideen kuotak eta kongresuak   |
| 2.5.2.8. MPC - Materials Physics Center Ikerketa Elkartea                             | 0,00 €           | Bikaintasun-foro intelektuala fisikaren eta materialen arloan   |
| <b>3. EAEko arlo publikoaren partaidetza duten beste erakunde batzuk</b>              |                  |   |
| <b>3.1. Merkataritzza-sozietateak</b>   |                  |   |
| <b>3.1.1. EAEko Administrazio Orokorrak zuzenean partaidetuak</b>                     |                  |   |
| 3.1.1.1. Empresa de Transformación Agraria SA (TRAGSA)                                | 421.539.000,00 € | Nekazaritza, baso, landa-garapen, ingurumen, aku kultura, arrantza eta naturaren kontserbazio arloko lanak, zerbitzuak, planak eta proiektuak. (Estatuaren beraren eta autonomia-erkidegoen bitartez) |
| 3.1.1.2. Elkargi EBB  | 7.243.000,00 €   | ETEen, autonomoen eta gizarte-ekonomiaren finantza-baldintzen hobekuntza, abal bidez.   |
| 3.1.1.3. Luzaro Establecimiento Financiero de Crédito SA                              | 5.791.000,00 €   | Inbertsioen finantzaketarako partaidetza-maileguak, finantza-finkapena eta nazioartekotze-prozesuen garapena.   |
| 3.1.1.4. Sociedad Promotora-Bi bao Plaza Financiera SA                                | 6.000,00 €       | Bilboko Burtsa eta haren finantza-ingurua indartzea eta garatzea  |
| 3.1.1.5. APARKABISA Bizkaiko Garraio Gunea SA   | 3.234.547,00 €   | Merkantzien biltegiatze-zentral integratuen eta errepide bidezko garraio- bilgailuen aparkalekuen sustapena, prestakuntza eta ustiapena, Bizkaian.  |
| 3.1.1.6. Araba Logística SA (Arasur)  | 2.324.000,00 €   | Jarduera logistikoetara bideratutako era kinen urbanizazioa, eraikuntza, garapena eta ustiaketa   |
| 3.1.1.7. El Abra - Getxo Kirol Portua SA  | 301.602,00 €     | Kirol-portuen plangintza, sustapena, garapena eta ustiapena   |
| <b>3.1.2. EEEK eta haren menpeko sozietateek partaidetuak</b>                         |                  |   |
| 3.1.2.1. Bahía de Bizkaia Electricidad, SM (BBE)                                      | 340.546.990,00 € | Elektrizitatea ekoizteko instalazioen era kuntza, ustiapena eta mantenua. Energia elektrikoaren ekoizpena eta salmenta, gas naturala merkaturatzea.   |
| 3.1.2.2. Bahía de Bizkaia Gas, SM (BBG)   | 38.972.081,00 €  | Gas natural likidotua berriz gastzeko plantaren eta Bizka ko instalazio osagarrien sustapena, eraikuntza eta mantenua   |
| 3.1.2.3. Central Hidroeléctrica San Pedro de Araia SA                                 | 337.254,00 €     | Ekoizpen elektrikoa   |
| 3.1.2.3. Gestión de Centrales del Añarbe SA (GECASA)                                  | 4.554.958,00 €   | Energia hidroelektrikoaren ekoizpena  |
| 3.1.2.4. Micronizados Naturales SA (MICRONATUR)                                       | 2.218.377,00 €   | Arroka eta mineral industrialen ustiapena eta komertzializazioa   |
| 3.1.2.5. Oñatiko Ur Jauziak SA  | 740.623,00 €     | Energia elektrikoaren ekoizpena   |
| 3.1.2.6. Zabalgardi SA  | 52.848.506,00 €  | Hiri-hondakin solidoen kudeaketa, eratorritako energia aprobetxatuz   |
| 3.1.2.7. Bidelek Sareak AIE   | 250.112,00 €     | Hiri- eta landa-guneetara sare adimendunak hornitzea, hornidura elektrikoaren eraginkortasuna eta segurtasuna areagotzeko heburuarekin  |
| 3.1.2.8. Telur Geotermia y Agua SA  | 1.350.085,00 €   | Energia geotermikoa aprobetxatzeko sistemen   |



|   |                 |   |
|---|-----------------|---|
|   |                 | ebaluaziorako eta era kuntzarako azterketak, proiektuak eta lanak   |
| 3.1.2.9. Ibil Gestor de Carga de Vehículo Eléctrico SA                        | 654.265,00 €    | Ibilgailu elektrikoaren karga-eremuen diseinua, eraikuntza, ustiaketa eta mantenua  |
| 3.1.2.10. Sociedad Promotora Bilbao Gas Hub SL                                | 242.644,00 €    | Gas-transakzioetarako logistika-, merkatu- eta finantza-zerbitzuak  |
| 3.1.2.11. Enagás Transporte del Norte SL                                      | 33.431.000,00 € | Gas-azpiegiturak eta instalazio osagarriak  |
| 3.1.2.12. Itsas Gas Bunker Supply SL  | 0,00 €          | Itsasontzietarako gas-hornidura   |
| 3.1.2.13. Cogeneración, Energías Renovables y Medioambiente, SM (CERM)        | 3.639.176,00 €  | Energia elektrikoaren ekoizpena   |
| 3.1.2.14. Cogeneración Bergara AIE  | 580.354,00 €    | Energia elektrikoaren ekoizpena   |
| 3.1.2.15. Cogeneración Martiartu SL   | 1.959.733,00 €  | Energia elektrikoaren ekoizpena   |
| 3.1.2.16. Naturgas Energía Grupo SA   | 364.328,00 €    | Energiaren sektoreko beste erakunde batzuen baliabideak edo kapitaleko partaidetzak izatea, administratu, eskuratu eta besterentzea |
| <b>3.1.3. EAEko Sektore Publ koko beste erakunde batzuek partaidetuta</b>     |                 |   |
| 3.1.3.1. Gasteizko Industria Lurra SA (GILSA)                                 | 804.479,00 €    | Industriarako hiritartutako lurzoru-zatien salmenta   |
| 3.1.3.2. Latxa Esnea S Koop   | 624.152,00 €    | Ardi-esnea eta haren eratorriak eta beste produktu eta zerbitzu batzuk merkaturatzea  |
| 3.1.3.3. Tecnalía Korporazio Teknologikoa AIE                                 | 268.234,00 €    | Ikerketa, garapena eta berrikuntza  |
| 3.1.3.4. Lursail SL   | 41.353,00 €     | Nekazaritza- eta abeltzaintza-, baso- eta arrantza-ustiapenen ekoizpen- eta merkaturatze-prozesuen hobekuntza                       |
| 3.1.3.5. Orubide SA   | 913.519,00 €    | Gizarte-etxebizitzak sustatzeko, esleitzeko eta eraikitzeko lursailak eta higiezinak erostea  |
| 3.1.3.6. Metaposta SA   | 8.912,00 €      | Zerbitzu digitalak  |
| 3.1.3.7. Kultur Klub Euskadi SL   | e. e.           | Kultura-sektoreko bitartekaritza  |
| 3.1.3.8. Expressive Media Proyects SL   | 2.203.119,00 €  | Publizitaterako euskarrien eta eremuen sustapena, ustiaketa eta salmenta lku-entzunezko zerbitzuak eta produktuak eta kanpainak     |
| 3.1.3.9. Metranybus SL  | 0,00 €          | Pertsonen eta salgaien garraioa   |
| <b>3.2. Fundazioak</b>  |                 |   |
| <b>3.2.1. EAEko Administrazio Orokorrek zuzenean partaidetutak</b>            |                 |   |
| 3.2.1.1. Soziologia Juridikoaren Nazioarteko Institutua (Oñati)               | 173.183,00 €    | Ikerketa eta soziologia juridikoa   |
| 3.2.1.2. Azti Fundazioa   | 5.076.088,00 €  | Nekazaritzako elikagai, ozeanografia, arrantza eta ingurumen arloko teknikak kertzeko zentro teknologikoa.                          |
| 3.2.1.3. Tecnalía Research and Innovation (TRI)                               | 0,00 €          | Ikerketa  |
| 3.2.1.4. Teknologia Aeronautikoaren Zentroaren Fundazioa (CTA)                | 3.513.000,00 €  | Teknologia aeronautikoaren sektoreko industriarako ikerketa   |
| 3.2.1.5. Hobetuz - Langileen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Fundazioa     | 0,00 €          | Langileen etengabeko prestakuntza   |
| 3.2.1.6. Makina-Erremintzen Hezkuntza Teknkorako Fundazioa                    | 1.606.724,00 €  | ETEei bideratutako prestakuntza eta zerbitzuak  |
| 3.2.1.7. Basque Culinary Center Fundazioa                                     | 1.142.461,00 €  | Zientzia gastronomikoaren arloko teknologiaren prestakuntza, ikerketa eta transferentzia  |
| 3.2.1.8. Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa                                | 419.747,00 €    | Museoa  |
| 3.2.1.9. Guggenheim Bilbao Museoa Fundazioa                                   | 7.023.509,00 €  | Museoa  |
| 3.2.1.10. Arabako Artium Fundazioa  | 177.639,00 €    | Museoa  |
| 3.2.1.11. Añanako Gatz Harana Fundazioa                                       | 599.006,00 €    | Museoa  |
| 3.2.1.12. Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioa (Aquarium)                        | 2.563.949,00 €  | Museoa  |
| <b>3.2.2. EAEko Sektore Publ koko beste erakunde batzuek partaidetuta</b>     |                 |   |
| 3.2.2.1. CIC energiGUNE - Ordezko Energiaren Ikerketa Zentroa                 | 0,00 €          | Energiaren arloko ikerketa  |
| 3.2.2.2. Tecnalía Fundazioa   | 0,00 €          | Teknologiaren arloko ikerketa   |
| 3.2.2.3. Euskalit - Kalitatea Sustatzeko Euskal Fundazioa                     | 565.957,00 €    | Kalitatearen arloko ikerketa, ebaluazioa eta diagnostikoak  |
| 3.2.2.4. Vicomtech, Elkarrekintza Bisual eta Komunikazioen Teknologia Zentroa | 3.170.304,00 €  | Computer Graphics, Visual Computing eta Multimedia teknologietan espezializatutako ikerketa aplikatuko zentroa                      |



|   |                 |  |
|---|-----------------|--|
| 3.3. Irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk   |                 |  |
| 3.3.1. EAEko Administrazio Orokorrak zuzenean partaidetuak  |                 |  |
| 3.3.1.1. Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzia  | 67.801,00 €     | Berrikuntza eremu guztietan erraztea                     |
| 3.3.1.2. CIC MICROGUNE - Mikro-Nano-Teknologiako Ikerketa Zentro Kooperatiboa   | 6.562,00 €      | Mikro- eta nano-teknologietako ikerketa                  |
| 3.3.1.3. Eraikune - Euskadiko Eraikuntzaren Klusterra   | 0,00 €          | Eraikuntza-sektorearen lehiakortasuna hobetzea           |
| 3.3.1.4. Zineuskadi elkarteak   | 0,00 €          | Laguntza estrategikoa kus-entzunezkoen euskal sektoreari |
| 3.3.2. EAEko Sektore Publ. koko beste erakunde batzuek partaidetuta   |                 |  |
| 3.3.2.1. Energia Klusterra:   | 0,00 €          | Energia-sektorearen lehiakortasuna hobetzea              |
| 3.3.2.2. Mendinet, Landa-garapeneraren aurrerapenerako elkarteak  | 32.619,00 €     | Landa-garapena   |
| 3.3.2.3. Gomiztegi Elkarteak  | 0,00 €          | Artzainen prestakuntza-zentroa                           |
| 3.3.2.4. CIC bioGUNE - Biozientzien arloko Ikerketa Kooperatiborako Zentroa   | 684.871,00 €    | Biozientzien arloko ikerketa                             |
| 3.3.2.5. CIC biomaGUNE - Biomaterialen arloko Ikerketa Kooperatiborako Zentroa  | 311.194,00 €    | Biomaterialen arloko ikerketa                            |
| 3.3.2.6. CIC tourGUNE - Turismoaren arloko Ikerketa Kooperatiborako Zentroa   | 73.836,00 €     | Turismoaren eta teknologia berrien arloko ikerketa       |
| 3.4. Bestelako erakundeak   |                 |  |
| 3.4.1. Itzarri BGAE   | 132.422,00 €    | Langileen pentsio-funtsa                                 |
| 4. Kontabilitate nazionalaren terminoetan harekin bateratzen diren EAEko Sektore Publikoari ez dagozkion erakundeak, aurreko ataletan gaineratuta ez daudenak |                 |  |
| 4.1. Eusko Legebiltzarra  | 0,00 €          |  |
| 4.2. Herri Kontuen Euskal Epaitegia   | 0,00 €          |  |
| 4.3. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (EGAB)   | 0,00 €          |  |
| 4.4. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (DBEB)   | 0,00 €          |  |
| 4.5. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea   | 33.538.000,00 € | Tasak  |
| 4.6. EHUKo Udako Ikastaroen Fundazioa   | 604.399,00 €    | Erabiltzaileen kuotak                                    |

Bestalde, EAEko udal-kopurua 250ekoa da, eta ustezko hartzaileei hiru aldundiak batu behar zaizkie<sup>11</sup>.

**8.** Arestian aipatutako datu horien arabera, Dekretu-zirriborroak eragindako zerbitzuaren ustezko 480 eskatzaile inguru egongo lirarteke.

Horietako askoren aholkularitza juridiko, ekonomiko eta teknikoaren premia oso handia izan daiteke, horiek betetzen dituzten jarduerak direla eta. Horrenbestez, Dekretu-zirriborroak eragindako zerbitzu juridikoen merkatu-zatia esanguratsua dela esan genezake.

Erakunde horietako batzuek (aurreko taulako 1.3 puntutik aurrera adierazten direnek batez ere) hainbat merkatutan jarduten dute (elektrizitatea, garraioa, publizitatea, lursail edo lokalen salerosketa, zerbitzu industrialak eta teknologia-zerbitzuak, energia-eraginkortasuna, prestakuntza-ikastaroen eskaintza, finantza-zerbitzuak...), eta eragile pribatuekin lehiari jarduten dute (kasu

<sup>11</sup> EUDEL - EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA. *Udalerrien tokiko direktorioa*. 2017 Hemen eskura daiteke: [http://www.eudel.eus/eu/directorio\\_local/municipios](http://www.eudel.eus/eu/directorio_local/municipios).



batzuetan ez dira botere esleiztaileak, eta, beraz, ez die kontratazio publikoaren araudiak eragiten, baina bai lehiari buruzkoak).

## B. Zerbitzuaren ustezko eskaintzaileak

9. Eskaintzari dagokion merkatuaren ezaugarriei dagokienez, eragile askok parte hartzen duten **merkatu dinamikoa** da.

Dekretu-zirriborro honek eragindako zerbitzu juridikoen eskaintza ez da EAera mugatzen, zerbitzu hori Espainiako edozein elkargori dagokion abokatu batek (bi elkargotako kide izan beharrik gabe) eta atzerriko abokatuek eskaini baitezakete, Europar Batasunekoek batez ere, xede horrekin ezarritako araudia betetzen badute<sup>12</sup>.

Euskal Autonomia Erkidegoan erregistratutako eskaintza kontuan hartuta –hura baita zuzenean gehien eragiten diona–, bi adierazle erabil daitezke. Lehenengoa Euskal Autonomia Erkidegoko Abokatuen Elkargo Ofizialetako kide diren abokatuei dagokie, eta hurrengo taulan jasotzen dira<sup>13</sup>:

| 2015. urtea |                        |                 |
|-------------|------------------------|-----------------|
| Elkargoa    | Elkargoko kide-kopurua | Jardule-kopurua |
| Araba       | 889                    | 569             |
| Bizkaia     | 5.009                  | 3.526           |
| Gipuzkoa    | 2.132                  | 1.638           |
| Guztira     | 8.030                  | 5.733           |

Abokatu jarduleen kopurua 5.733koa da Euskal Autonomia Erkidegoan, hau da, hiru elkargoetako kide guztien % 71.

Bigarren adierazlea Eustaten Lanbide eta Enpresa Zerbitzuen Inkestari dagokio, hark sektorearen dimentsiora gerturatzea ahalbidetzen baitu, jarduera juridikoekin eta kontabilitate-jarduerekin lotutako datuen bitartez<sup>14</sup>.

<sup>12</sup> 34/2006 Legea, urriaren 30ekoa, auzitegi-tako abokatu- eta prokuradore-lanbideetara sartzeari buruzkoa. BOE, 260. zenbakia, 2016ko urriaren 31koa. Testu bateratua hemen eskura daiteke: <http://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2006-18870>; 2006/123/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa. EBAO L 376/36, 2006ko abenduaren 27koa. Hemen eskura daiteke: <https://www.boe.es/doue/2006/376/L00036-00068.pdf>.

<sup>13</sup> ESPAINIAKO ABOKATUTZAKO KONTSEILU NAGUSIA 2015eko txostena. Hemen eskura daiteke: <http://www.abogacia.es/wp-content/uploads/2016/06/MEMORIAok.pdf#page=399>.

<sup>14</sup> EUSTAT. Lanbide eta Enpresa Zerbitzuen Inkesta. 2016. Hemen eskura daiteke: [http://www.eustat.eus/banku/id\\_2278/indexLista.html](http://www.eustat.eus/banku/id_2278/indexLista.html).





| EAEko jarduera juridikoak eta kontabilitate-jarduerak |           |           |           |           |
|---|-----------|-----------|-----------|-----------|
|   | 2009      | 2012      | 2013      | 2014      |
| Establezimenduak (kopurua)                            | 9.677     | 10.325    | 10.522    | 10.916    |
| Langile okupatuak (kopurua)                           | 22.721    | 23.389    | 22.991    | 23.212    |
| -Autonomoak eta familia-laguntzak (kopurua)           | -         | 6.801     | 6.881     | 7.083     |
| -Soldatapekoak (kopurua)                              | -         | 16.588    | 16.110    | 16.129    |
| Negozio-zifraren zenbateko garbia (milaka euro)       | 2.238.247 | 2.451.886 | 2.226.242 | 2.322.437 |

2009. urtearekin alderatuta, 2014an % 13ko eta % 2ko igoera nabarmendu da, hurrenez hurren, establezimenduen eta langileen kopuruei dagokienez. Jarduera juridikoen eta kontabilitate-jardueren epigrafeko negozio-zifra 2014ko lanbide- eta enpresa-zerbitzuen sektoreak fakturatutakoaren % 28koa izan zen, eta % 4 igo da aztertutako aldiari.

Establezimenduen tamainari dagokionez, 2014an, establezimendu bakoitzeko langileen batez bestekoa 2,12 langilekoa zela ikusi dugu.

**10.** Bestalde, gure herrialdean elkargoetako kide diren abokatuen kopurua oso altua da Europako beste herrialde batzuekin alderatuta. Hurrengo taulan, elkargoetako kide diren abokatuen kopurua eta abokatuen ratioa jasotzen dira, 100.000 biztanle bakoitzeko<sup>15</sup>.

Datuak azertu ostean, eta elkargoetako kide diren abokatu guztiak kontuan hartuta, 100.000 biztanle bakoitzeko Espainiako abokatuen tasa (545,1) bigarren altuena dela ikus dezakegu, Liechtenstein ostean (562). Jardunean dauden abokatuak bakarrik kontuan hartuz gero, Espainiako tasa 325,3koa da, Frantziako (90,7) edo Suediako (57,6) tasak baino askoz altuagoa.

| ABOKATU KOPURUA EUROPAKO HERRIALDEETAN <sup>16</sup> |  |                            |
|--|--|----------------------------|
| Herrialdea   | Elkargoetako kide diren abokatuak, guztira | Abokatuak/100.000 biztanle |
| Alemania   | Ez dago eskuragarri.                       | -                          |
| Austria  | 5.940                                      | 69,3                       |
| Belgika  | 18.174                                     | 152,6                      |
| Bulgaria   | 12.629                                     | 175,3                      |
| Zipre  | 2.994                                      | 353,5                      |
| Kroazia  | 4.483                                      | 106,1                      |
| Danimarka  | Ez dago eskuragarri.                       | -                          |
| Eslovenia  | 1.611                                      | 78,1                       |
| Espainia   | 253.190 (151.096 aktibo)                   | 545,1 (325,3 aktibo)       |
| Estonia  | 947  | 72,1                       |
| Finlandia  | 2.048                                      | 37,4                       |
| Frantzia   | 60.223                                     | 90,7                       |
| Grezia   | 21.439                                     | 197,4                      |
| Holanda  | Ez dago eskuragarri.                       | -                          |
| Hungaria   | 12.512                                     | 127,0                      |
| Irlanda  | 2.243                                      | 48,5                       |

<sup>15</sup> EUROSTAT. *Population on 1 January 2015*. Hemen eskura daiteke: <http://ec.europa.eu/eurostat/tgm/table.do?tab=table&init=1&language=en&pcode=tps00001&plu gin=1>.

<sup>16</sup> COUNCIL OF BARS AND LAW SOCIETIES OF EUROPE (CCBE). *Ccbe Lawyer's Statistics 2015*. Hemen eskura daiteke: [http://www.ccbe.eu/fileadmin/speciality\\_distribution/public/documents/Statistics/EN\\_STAT\\_2015\\_Number\\_of\\_lawyers\\_in\\_European\\_countries.pdf](http://www.ccbe.eu/fileadmin/speciality_distribution/public/documents/Statistics/EN_STAT_2015_Number_of_lawyers_in_European_countries.pdf).



|                         |                                      |                       |
|-------------------------|--------------------------------------|-----------------------|
| Islandia                | 1.057                                | 321,2                 |
| Italia                  | 246.786                              | 405,9                 |
| Letonia                 | Ez dago eskuragarri.                 | -                     |
| Liechtenstein           | 210                                  | 562,0                 |
| Lituania                | 2.074                                | 71,0                  |
| Luxenburgo              | Ez dago eskuragarri.                 | -                     |
| Malta                   | Ez dago eskuragarri.                 | -                     |
| Norvegia <sup>17</sup>  | 6.631 elkargoko kide (7.450 guztira) | 144,2                 |
| Polonia                 | 36.582                               | 96,3                  |
| Portugal                | 29.240                               | 281,8                 |
| Erresuma Batua          | 188.263                              | 290,2                 |
| Txekiar Errepublika     | 12.015 (10.799 aktibo)               | 114,01 (102,5 aktibo) |
| Eslovakiako Errepublika | 5.867 (5.114 aktibo)                 | 108,2 (94,3 aktibo)   |
| Errumania               | 23.784                               | 119,7                 |
| Suedia                  | 5.618                                | 57,6                  |
| Suitza                  | Ez dago eskuragarri.                 | -                     |

**11.** Horrenbestez, gaitasun-arazorik ez duen eta eskaintza atomizatua duen merkatua da, eta eskaintzaile bakoitzak oso merkatu-botere txikia du bertan<sup>18</sup>.

Elkargoko kide diren abokatuek eskaintako zerbitzu juridikoen eskaintzak ez dirudi eskasa eskaerari erantzuteko, eta, ez teorian ez praktikan, ez da administrazioak ebatzi beharreko merkatuko akats baten existentziarik hautematen, proposatutako lehia murriztuz.

Ez da zerbitzu juridikoen eskaintza diskriminatzeko inolako arrazoirik ikusten, merkatuko lehia murriztuz, administrazioarako beharrezko zerbitzu ekonomikoen edo teknikoen aurrean.

### 3. Dekretuak merkatuan duen eragina

**12.** Merkatuak ez luke inolako ondoriorik jasango, bere auto-antolaketa funtzioak garatzean, Zerbitzuak EAeko Administrazio Orokorrari erantzungo balio. Interes publikoaren defentsa betetzeko, barneko aholkularitza-funtzioetarako jarduera batzuk erreserbatzen dira, eta hura beharrezkoa eta egiaztatua izan daiteke.

Gainerako kasuetan (administrazio instituzionalaren, Eusko Jaurlaritzaren partaidetza jasotzen duten merkataritza-sozietateen eta beste administrazio batzuen kasuan), hirugarrenei eskaintako zerbitzuak izango dira. Zerbitzu horiek ez dute inolako berezitasunik elkargoko kide den edozein profesionalak merkatuan eskain dezakeen zerbitzuarekin alderatuta.

<sup>17</sup> Elkargoko kide izatea ez da beharrezkoa Norvegian.

<sup>18</sup> ESPINOSA, M.P.; CIARRETA, A. eta ZURIMENDI, A. *Reforma del mercado de servicios profesionales*. Ed. Funcas, Madril, 2014; CIARRETA ANTUÑANO, Aitor; ESPINOSA ALEJOS, M.P.; MARTÍN OSANTE, J.M. eta ZURIMENDI ISLA, A., *El estado de la competencia en las profesiones de abogado y procurador*, Ed. Civitas, Iruña, 2010.



## A. "Laguntza juridiko publikoa" deiturikoa

**13.** Dekretuak "laguntza juridiko publikoa" deiturikoa arautzen du, baita hari dagozkion "funtzioak" ere (2. artikulua).

Izendapenak nahasketa eragin dezake, zerbitzu publiko bat dagoela ulertarazten baitu, hori horrela ez izan arren. Dekretu-zirriborroan adierazten den moduan, zerbitzu hori EAEko Administrazio Orokorreko funtzionarioek eskaintzen diote Administrazioari berari, beste erakunde publiko batzuei eta Jaurlaritzari atxikitako beste merkataritza-sozietate batzuei<sup>19</sup>. Horrenbestez, ez da edukiaren edo hartzailearen araberrako (ez dira herritarrak) zerbitzu publiko bat eskaintzen. Zerbitzu publikoaren gertukotzat jo daitekeen zerbitzu juridiko bakarra –babes judizial eraginkorraren printzipioa bermatzeko– doako laguntza juridikoa da, elkargoko kide diren abokatuak eskaintzen dutena eta altxor publikoak ordaintzen duena, xede horrekin sortutako araudiari jarraiki<sup>20</sup>.

## B. Hitzarmena

**14.** Legeriak lankidetzak-hitzarmenak egitea ahalbidetzen du, betiere **Estatuko eta Europako kontratazio-araudiak zentzu horretan zehazten dituen baldintzak betetzen badira**<sup>21</sup>.

Hitzarmen bat egin ahal izateko, "zerbitzu publikoko misio komun" bat izan behar dute bi erakundeek, eta ez kostubide hutsa (kontraprestazioa, prezio baten edo beste zerbitzu baten truke eskainitako zerbitzua). Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJBA) behin eta berriz errepikatu du jurisprudentzia alderdi horren inguruan<sup>22</sup>. Hark argi eta garbi zehazten du

<sup>19</sup> Printzipioz, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren Goi-mailako Teknikarien Gorputzak edo A-2 delakoak, Zuzenbidean Lizentziatua aukerakoak, eskainiko du zerbitzua.

<sup>20</sup> 1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, doako laguntza juridikoari buruzkoa. BOE, 11. zenbakia, 1996ko urtarrilaren 12koa.

<sup>21</sup> 2014/24/EB Zuzentarauko 12.4. artikulua eta 40/2015 Legea.

<sup>22</sup> Ikus Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2015eko urriaren 6ko epaiak, C-203/14 gaia, Consorci Sanitari del Maresme (ECLI:EU:C:2015:664), 2013ko ekainaren 13a, C-386/11 gaia, Oberlandesgericht Düsseldorf – Alemania) – Piepenbrock Dienstleistungen GmbH & Co. deiturikoak planteatutako epaitu aurreko erabakiaren eskaera. KG / Kreis Düren (ECLI:EU:C:2013:385); 2012ko abenduaren 19koa, C-159/11 gaia, Azienda Sanitaria Locale di Lecce, Università de Salento / Ordine degli Ingegneri della Provincia di Lecce eta beste batzuk (ECLI:EU:C:2012:817), eta Europar Batasuneko Auzitegi Nagusiaren 2009ko ekainaren 9ko epaia, C-480/06 gaia, Europako Erkidegoen Batzordea / Alemaniako Errepublika Federala (ECLI:EU:C:2009:357). Ikus, halaber, 2014/24 Zuzentarauko 2.1.10. artikulua eta 31. kontuan hartuzkoa, eta "Batzordeko zerbitzuen lan-dokumentua, EBko kontratazio publikoari buruzko



negozio juridiko bat hitzarmen gisa izendatze hutsak izaera hori eskaintzen ez diola eta kontratazio publikoaren araudia aplikatzea galarazten ez duela.

Horrenbestez, bi baldintza horiek betetzen badira, **interes-gatazkarik ez badago** eta erakunde onuragarriek zerbitzua nork eskainiko dien (Administrazio Orokorrak edo elkargoko kide diren abokatuek) erabakitzeko **askatasuna** badute bakarrik, hitzarmenek lehia kaltetzen ez dutela esan genezake.

Dena den, ezin izango da administrazio arteko hitzarmenik planteatu sinatu beharreko negozio juridikoaren bitartez zerbitzu bat diru-kantitate baten truke eskaintzen bada.

**15.** Dekretu-zirriborroaren 4. artikulua –“Hirugarrenentzako laguntza juridikoa eskaintzeko lankidetzaren erregimena”– **lankidetzaren** deiturikoei egiten die erreferentzia<sup>23</sup>.

Aginduaren arabera, zerbitzu juridikoko abokatuek urtero ordaindu beharreko kontraprestazio ekonomiko baten truke eskainiko dituzte aholkularitza alorreko eta epaiketaren defentsarako beren zerbitzuak<sup>24</sup>.

Aztertutako aginduak emandako deskribapena ez dator bat hitzarmenaren definizioarekin. Zerbitzu bat kontraprestazio ekonomiko baten truke eskaintzea barne hartzen duen negozio baten aurrean gaude. Horregatik, deskribatutako negozioa kontratuzkoa dela ondorioztatu behar dugu. Eskaini beharreko zerbitzuaren izaerak eta Dekretu-zirriborroan gaineratutako prezioaren ordainketak behar bezala berresten du sinatu beharreko negozio juridikoa kontratu bat dela, eta ez hitzarmen bat.

**16.** Hori guztia dela-eta, honako hau ondorioztatu genezake: legeak administrazio arteko dohaineko hitzarmenak egitea baimendu arren, eta horiek arestian azaldutako arrazoiek egiaztatuta egon arren, zirriborroaren 4. artikuluan proposatutako erregulazioa ez dator bat kontratuen araudiarekin, eta modu negatiboan eragiten dio merkatuari.

---

araudia botere esleitzzaileen arteko harremanetara aplikatzeari buruzkoa (sektore publikoaren barneko lankidetzaren) SEC (2011) azken 1169, 2011ko urriaren 4koa.

<sup>23</sup> Dekretuaren Lehen Azken Xedapenak araubide juridiko bat finkatzen du hitzarmenarako. Hark ez dio zerbitzu juridikoa eskaintzearekin lotutako hitzarmenei bakarrik erreferentzia egiten. Erregulazio hori dekretu honetan txertatzeak lehia baino haratago doazen teknika arautzaileko arazoak planteatu ditzake, EAEko eskumenei eragiteaz gain.

<sup>24</sup> Zerbitzu horiek kobratu daitezela onartzea administrazioko departamentu batek beste bati eskaintzen dion edozein zerbitzu (ordainsarien kudeaketa, aurrekontua, aholkularitza ekonomikoa, teknikoa...) prestazio eta fakturazio baten xede izango litzatekeela onartzea bezala izango litzateke.



### C. Kontratu bat egiteak eragingo lituzkeen arazoak

**17.** Zerbitzua Dekretu-zirriborroaren 3. artikuluan izendatutako edozein erakundek kontratatuko balu, Eusko Jaurlaritzak **eragile ekonomiko gisa jardungo luke** Zerbitzu Juridikoaren bitartez. Zerbitzuak norbere bitartekotzat jo ezin daitezkeen erakundeentzat lan egiten duen momentutik, haren jarrerak eta erregulazioak merkatuko arauak bete beharko lituzke, eta, beraz, baita kontratazio publikoari buruzko araudia, lehien araudia eta lehiaketa-prozesu orori atxikitako printzipioak ere.

Hitzarmena posible ez den kasuetan, Zerbitzuaren esku-hartzeak enpresa edo profesional pribatuekiko lehia eragingo luke, horiek zerbitzu baliokideak hornitzen baitituzte abokatuen aholkularitzari dagokion merkatuan. Kasu honetan, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren kontratazioarekin topo egiten dugu, elkargoko kide diren abokatuekiko lehia eraginez.

Horrela, zerbitzu juridikoei dagokien eskaeraren zati bat beretzat hartzen eta hura merkatutik kanporatzen arituko ginateke, kontratuak irauten duen bitartean eta interes orokorraren kontra.

**18.** Zerbitzuak eragindako merkatuaren atomizazioaren aurrean dituen ezaugarriak, eta, aurrerago ikusiko dugun moduan, hark dituen eskumenak direla-eta (ikus 27, 28 eta 29. zenbakiak), hura erreferentziazko eskaintzaile bihurtu ahal izango litzateke prezioei eta baldintzei dagokienez, aldi berean, elkargoko kide diren profesionalen konkurrentziarako sustagarria murriztuz.

**19.** Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bategineko 57.1. artikulua ikuspuntutik, Zerbitzuak ustezko kontratuak sinatzeko lehiaketa publikoetara jo nahiko balu, zerbitzu juridikoaren nortasun juridikorik ezaren arazoa sortuko litzateke, eta, beraz, baita jarduteko eta objektu sozialaren gaitasuna ere. Horrenbestez, EAeko Administrazio Orokorrek berak lizitatu beharko lituzke neutraltasun lehiakorreko arazoak, 26. lerrokan aztertuko ditugun zerbitzuaren prezioak finkatzeaz gain.

### D. Azpikontratazioa

**20.** Dekretu-zirriborroaren 44. artikulua arabera, Zerbitzuak haren funtzionamendurako beharrezko bitartekoak izango ditu. Bestalde, arauak kanpoko profesionalentzako "agindu" bat aipatzen du, "7/2016 Legearen terminoetan" (7/2016 Legeak aginduak ez aipatu arren) (Erregelamendu-proposamenaren 5. eta 6. artikulua) (Dekretu-zirriborroaren 30, 31 eta 32. artikulua).



**21.** Berriz ere, izendapen batek –kasu honetan, "agindua" hitzak– gaizki-ulertu bat eragiten du, errealitatean, kasuan kasuko aginduek zerbitzuak kanporatzeari erreferentzia egiten baitiote, EA Eren Administrazio Orokorri zerbitzuak eskaini behar zaizkionean, edo Zerbitzuaren aldetik profesional pribatuak azpikontratatzeari, gainerako kasuetan.<sup>25</sup>

**22.** Zerbitzuaren laguntza jasoko lukeen subjektu-kopuruaren aparteko igoera eta haren ondorengo azpikontratazioa direla-eta, Jaurlaritzaren saila **bitartekari huts** bat bihurtuko litzateke zerbitzu juridikoen merkatuan.

Bitartekaritza hori **ez litzateke beharrezkoa izango**, hirugarrenek modu zuzenean egin baitezakete kontratazioa, norbere premiak kontuan hartuta, eta ez dago hura justifikatzeko moduko interes orokorreko ezinbesteko arrazoirik.

Izan ere, bitartekaritzak hainbat **ondorio negatibo izan ditzake eraginkortasunean:**

Bitartekarien bitartez lan egiteak kostuak eta denbora-tarteak handitzen ditu. Baliabideen esleipenean eragiten du, eskaintzak eta eskaerak modu askean elkarreragiteko oztoporik gabeko egoera batean, eta, beraz, eskatzaileek (bezeroek) eta eskaintzaileek (abokatuek) erabakitzeko erabateko gaitasuna izan behar dute.

Era berean, egoera horrek merkatuko indar lehiakorren jolas librea aldatuko luke, eta nolabaiteko barne-banaketak egingo lirateke, Zerbitzuak negozio-bolumen garrantzitsu bat "beregantuz".

Proposatutako bitartekaritza horren bitartez, baliabideak jarrera ez eraginkorretara bidera daitezke –adibidez, kontratuak lortzeko *lobby* eginkizuna eginez–, eragileek zerbitzu eraginkorragoa eskaintzeko dituzten pizgarriak murriztuz.

Gainera, Administrazioak bulego jakin batzuk azpikontratatzeko hutsak ustezko interes-gatazkak areagotu ditzake. Hori are larriagoa da, Dekretu-zirriborroak

---

<sup>25</sup> Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen testu bateginaren arabera (4.1.n artikulua), kudeaketa-aginduak haren aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira, eta horien artean sartuko lirateke norbere bitarteko bati edo haren zerbitzu tekniko bati prestazio bat bete dezala eskatzen dioten negozio juridikoak. Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeak botere esleiztailearen bitarteko propietat jo ahal izango dira (SPKLTBko 24.6. artikulua), jardueraren zatirik funtsezkoena botere esleiztailearentzat gauzatzen dutenean; horretarako baina, botere esleiztaileak, bere zerbitzu propioen gainean duen kontrolaren antzekoa eduki behar du ente, organismo eta erakunde horien gainean. Sozietateak baldin badira, gainera, kapital osoa titulartasun publikokoa izango da. Ikus LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN 2015eko azaroaren 11ko Ebazpenaren 25. zenbakitik 28. zenbakira, 7/2013 expt. Arabako Obra Publikoak).

[http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/resoluciones/es\\_resoluci/adjuntos/RESOLUCION%20arabako%20lanak%20definitiva%20sin%20firmas.pdf](http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/resoluciones/es_resoluci/adjuntos/RESOLUCION%20arabako%20lanak%20definitiva%20sin%20firmas.pdf).





Zerbitzu juridikoaren bezero gatibu batzuk sortzen baititu modu artifizialean, momentura arte horiei zerbitzurik ez eskaini arren.

## E. Konpentsazio ekonomikoa

**23.** Dekretu-zirriborroaren 4. artikuluko 4. lerroakadak konpentsazio ekonomikoa aurreikusten du hirugarrenei aholkularitza juridikoko zerbitzuak eskaintzeagatik<sup>26</sup>.

Xedapen horren arabera, **konpentsazioa** –kontsultagatik nahiz auzibideagatik– urteko erreferentzia izango duen oroharreko prezio bat izango da, iraungitako lauhilekoei dagokien hiru epetan ordaindu beharrekoa, eta haren zenbatekoa gai-kopuruaren eta horien garrantziaren arabera finkatuko da, KPiarakin eguneratuko delarik<sup>27</sup>.

Bestalde, 23. artikuluan auzi-jarduerak arautzeari dagokionez jasotzen den moduan, Zerbitzuak berak zehaztuko ditu **minutak egitean aplikatu beharreko** “eredua eta irizpideak” eta berak egingo ditu **kosten tasatze-proposamenak**<sup>28</sup>.

2. zenbakiaren arabera, irizpide horiek publikoak izango dira, **eta abokatutzaren eta prokuradoretzaren jarduera profesionalaren ordainsariak arautzeko edo bideratzeko arauetan oinarrituko dira.**

**24.** Zentzu horretan, prezioen gomendioak eta finkapenak lehiaren eta interes orokorraren kontrakoak direla gogoratu behar dugu.

Zerbitzuen Zuzentarauak gauzatutako liberalizazioaren ostean, *Ómnibus* Legeak ezabatu egin zuen Elkargoek ordainsari orientagarriak ezartzeko zuten funtzioa –Elkargo Profesionalei buruzko Legearen 5. artikuluan jasotzen da–.

<sup>26</sup> Hirugarrenei eskaintako aholkularitza juridikoko kontsulta –hau da, aholkularitza juridikoa (2.1. artikuluko a) letra)– eta auzibidea –hau da, epaiketako ordezkartza eta defentsa (xedapen bereko b letra)– hartzen ditu barne.

<sup>27</sup> 2/2015 Legea, martxoaren 30koa, Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzkoa. BOE, 77. zk., 2015eko martxoaren 31koa. Hemen eskura daiteke: [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-3443](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-3443). 22/2013 Legea, abenduaren 23koa, Estatuaren 2014rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (BOE, 309 zk., 2013ko abenduaren 26koa). Hemen eskura daiteke: [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2013-13616](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2013-13616). Zortzigarren Xedapen Gehigarriak ez du IKP erreferentziako indize gisa erabiltzea ahalbidetzen; izan ere, hark sektore publikoko kontratuen prezioen berrikuspenean eragiten du.

<sup>28</sup> Zentzu horretan, Dekretuan txosten honetako gorputzean adierazitakoak bezain esanguratsua ez den lehiaren nolabaiteko murrizketa egiten da, zerbitzua eskaintzeko baldintzei eragiten diena. Kostuak ordaintzeko finkapen-sistemari dagokigu, baita jasotako zerbitzua konpentsatzeko oroharreko prezioaren ordainketa-sistemari ere. Zerbitzuaren ezaugarriak dituen eragile batek kontratuzko baldintza batzuk argitaratu izanak merkataritza-baldintzen harmonizazioan lagun dezake merkatuko erronkan.



Horren orde, Elkargo Profesionalei buruzko Legeak berariaz debekatu zuen hori egitea<sup>29</sup>.

EPLaren Xedapen Gehigarrian dator salbuespen bakarra, hark Elkargo profesionalek "irizpide orientagarriak" prestatzea ahalbidetzen baitu, **baina soilik kostuen tasaziorako eta abokatuen kontuen zinerako**<sup>30</sup>.

**25.** Erregulazio hori Dekretu-zirriborroaren testura aplikatzeak ondorio negatiboak eragiten ditu berriz ere.

Lehenik eta behin, EAEko Administrazio Orokorrak guri dagokiguna bezain garrantzitsua den abokatu-talde baten ordainsariak finkatzeko irizpideak publiko egin izanak modu negatiboan eragin dezake merkatuan, zerbitzuen zuzentarauaren kontra aitortu denaren gisakoa<sup>31</sup>.

Horrez gain, eta adierazi dugun moduan, Legeak irizpide orientagarriak bakarrik finkatzea ahalbidetzen du, kostuak zehazteko eta kontuei zin egiteko. Horregatik, zirriborroan **minutak prestatzean aplikatu beharreko** "eredua eta irizpideak" ezarriko dituen Zerbitzua izango dela ezarri izana zuzenbidearen kontrakoa izan liteke.

Gainera, berariaz adierazten da irizpideek "**abokatutzaren eta prokuradoretzaren jardura profesionalaren ordainsariak arautzen edo bideratzen dituzten arauetan oinarritu**" beharko dutela, eta arau horiek behin eta berriz zigortu dira lehiaren agintaritzen bitartez, hori onargarria ez delako. Ez dugu ahaztu behar Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak Alcalá de

<sup>29</sup> EPLaren 14. artikulua: Ordainsariei buruzko gomendioen gaineko debekua. «Elkargo profesionalek eta haien mendeko erakundeek ezin izango dute ordainsari profesionalei buruzko baremo orientagarriak, gomendiorik, jarraibiderik, ez araurik jaulki, laugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa izan ezik».

<sup>30</sup> Ikus LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. *Informe sobre los Colegios Profesionales tras la transposición de la Directiva de Servicios*, Madril, 2011. [https://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Informes\\_y\\_Estudios\\_Sectoriales/2012/Informe%20Colegios%20Profesionales%20tras%20Directiva%20de%20Servicios.pdf](https://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Informes_y_Estudios_Sectoriales/2012/Informe%20Colegios%20Profesionales%20tras%20Directiva%20de%20Servicios.pdf). Irizpide orientagarriak dira «kostuak tasatzeko aintzat hartu behar diren elementuak». Ezin da «irizpidetzat» hartu elementu horiek kasuan-kasuan aplikatuta lortzen den emaitza kuantitatiboa. Kasu horretan prezio edo ordainsaritzat hartu behar genuke hori, eta, ondorioz, debekatutako jardute gisa.

<sup>31</sup> Ikus Batzordearen 2016ko uztailaren 7ko Erabakia, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 101. artikuluaekin bat datorren prozedurari buruzkoa eta EEE Itunaren 53. artikulua. AT.39850 gaia, Edukiontzien itsasoko garraioari buruzkoa. EBAO C 327/4, 2016ko irailaren 6koa. Erabakiaren laburpena hemen eskura daiteke: [http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A52016XC0906\(01\)](http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A52016XC0906(01)). Erabakiaren bertsio osoa hemen eskura daiteke: [http://ec.europa.eu/competition/index\\_en.html](http://ec.europa.eu/competition/index_en.html).



Henares eta Madrilgo Abokatuen Elkargoak zigortu dituela beren web-orrietan ordainsariak argitaratzeagatik<sup>32</sup>.

**26.** Irizpide horiek EAEko Administrazio Orokorrek berak **finkatu** eta **argitaratu** izanak ondorioak izango lituzke merkatuan, Elkargoaren bitartez eragile pribatuak finkatuko balira bezala. Administrazio Orokorren zerbitzu juridikoaren irizpideak argitaratze hutsa –ordainsariei buruzko gomendioak finkatzeko debekua nabarmena den eta behin eta berriz errepikatu den egoera honetan– erreferente gisa hartu ahal izango litzateke, eta interes orokorraren kontrako gutxieneko prezioen harmonizazio- edo asimilazio-ondorioak eragingo lituzke.

## F. Administrazioaren eta/edo abokatuen prerrogatiba prozesalak

**27.** Dekretu-zirriborroaren 4.3. artikuluan adierazten den moduan "Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiak lankidetzaz hitzarmenaren bidez bere gain hartzen dituen laguntza juridikoaren eginkizunen jardunean, abokatuen eskubideak, betebeharrak eta prerrogatibak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokor eta instituzionalaren aholkularitza juridikorako eta epaiketetako ordezkarietarako eta defentsarako ezarritakoak".

Bestalde, honako hau zehazten da Dekretuaren 22.1. artikuluan: "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak edo instituzionalak Estatuak dauzkan espezialitate prozesal berberak izango ditu, dekretu honetako barne- edo kanpo-modalitateen arabera gaitutako profesionalen bidez edo zerbitzu juridiko publikoetako abokatuen bidez jarduten duenean epaiketetan".

---

Ikus MLBNren *Resolución Honorarios Profesionales ICAM*, Madril, 2016ko irailaren 15a, expt. SAMAD/09/2013, <https://www.cnmc.es/expedientes/samad092013-i>; 2016ko irailaren 15ekoa, expt. SAMAD/09/2013 Bis Honorarios Profesionales ICAAH, [https://www.cnmc.es/sites/default/files/976828\\_14.pdf](https://www.cnmc.es/sites/default/files/976828_14.pdf) eta 2016ko abenduaren 22koa, expt. S/DC/0560/15 Colegio de Abogados de Guadalajara 2, [https://www.cnmc.es/sites/default/files/1493570\\_1.pdf](https://www.cnmc.es/sites/default/files/1493570_1.pdf); Ikus, halaber, LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN *Arabako Lan Harremanetako Gradudunen Elkargo Ofizialaren Estatutuei buruzko txostena* Bilbo, 2016ko azaroaren 15ekoa, [http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es\\_informes/10-20-INFORME%20COLEGIO%20DE%20GRADUADOS%20SOCIALES%20DE%20ALAVA%20smd.pdf](http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/10-20-INFORME%20COLEGIO%20DE%20GRADUADOS%20SOCIALES%20DE%20ALAVA%20smd.pdf); *Bizkaiko Ingeniari Industrialen Elkargo Ofizialaren Estatutuei buruzko txostena*, Bilbo, 2015eko ekainaren 15ekoa. [http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es\\_informes/informe%20-%20ingenieros%20industriales%20bizkaia%20DEFINITIVO%20%20\(15-6-2015\).pdf](http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/informe%20-%20ingenieros%20industriales%20bizkaia%20DEFINITIVO%20%20(15-6-2015).pdf); *Lehiaren Euskal Agintaritzaren Txostena, Gipuzkoako Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofizialaren eta Adar Tekniko horretako Ingeniaritzan Graduatuen Estatutuei buruzkoa*, Bilbo, 2014ko uztailaren 17koa [http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es\\_informes/adjuntos/Informe%20Estatutos%20CO.%20peritos%20e%20ingenieros%20gipuzkoa\\_web.pdf](http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/adjuntos/Informe%20Estatutos%20CO.%20peritos%20e%20ingenieros%20gipuzkoa_web.pdf).



**28.** Prerrogatiba prozesalen artean, komunikazio-egintza prozesalei dagozkienak azpimarra daitezke –prokuradore-beharrik eza–, Estatuko Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 11. artikuluan; gastu, kauzio eta gordailuen salbuespena (arau bereko 12. artikulua); autoak eteteko aukera (arau bereko 14. artikulua); demanda-kasuetan lehentasuna duen foru-lurraldea (arau beraren 15. artikulua); froga arloetako arau bereziak (Prozedura Zibilaren Legeko 315. artikulua); administrazioarekiko auzien esparruko epaien exekuziorako arau bereziak (administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren legeko 103. artikulua); tasak...<sup>33</sup>.

Gainera, badira beste abantaila batzuk ere, finantza-mugarik ez izatea edo administrazioen artean lankidetzan ez jardun beharra, adibidez, eta, horrela, abokatuak partikular batek eskura ez dezakeen informazioa lor dezake.

**29.** Dekretu-zirriborroa idazteko erabili den eduki literaletik hainbat ondorio erator daitezke:

Bigarren ondorioa da, zirriborroaren terminoetan, EAeko Administrazio Orokorrari on egiten dieten prerrogatibak **inolako justifikaziorik gabe hedatuko liratekeela Jaurlaritzaren zerbitzu juridikoak kontratatzen dituzten erakunde guztietara, hitzarmenak deituriko horien bitartez.**

Ez dirudi izaera publikorik gabeko hirugarren batekin sinatutako "hitzarmen" batek mota horretako berezitasunak eslei ditzakeenik.

Edonola ere, Dekretuan alde batera uzten dira, hala badagokio, epaitegiek eta auzitegiek prerrogatiba horiek onartu beharko lituzketela, indarrean den araudi prozesalari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoaren legegintza-ahaletik kanpo geratzen den eremua.

Gainera, Zerbitzuak baldintza onuragarrietan jardungo luke elkargoko abokatu lehiakideei dagokienez, eta horrek lehia-arazo larriak planteatzen ditu, Zerbitzu

---

<sup>33</sup> Prerrogatiba horiek Estatuko Abokatutza arautzen duen araudian aurreikusten direnen antzekoak dira. Prerrogatiba horiek Estatuko Abokatutza arautzen duen araudian aurreikusten direnen antzekoak dira:

52/1997 Legea, azaroaren 27koa, Estatuari eta herri erakundeei lege gaietako laguntza ematekoa, BOE, 285. zk., 1997ko azaroaren 28koa. Testu bateratua hemen eskura daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1997-25338> eta 997/2003 Errege Dekretua, uztailaren 25ekoa, Estatuko Zerbitzu Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen, BOE, 88. zk., 2003ko abuztuaren 7koa. Testu bateratua hemen eskura daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2003-15800>; 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, Prozedura Zibilar buruzkoa, BOE, 7. zk., 2000ko urtarrilaren 8koa. Testu bateratua hemen eskura daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2000-323>; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, BOE, 167. zk., 1998ko uztailaren 14koa. Testu bateratua hemen eskura daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1998-16718>.



Juridikoaren prerrogatibak arma-berdintasunaren oinarritzko printzipioaren kontrakoak baitira, Zuzenbideko Estatu osoan gobernatu behar duen prozesuan.

### **G. Gaiaren funtsari dagozkion Zerbitzuaren prerrogatibak**

**30.** 7/2016 Legearen arabera, "Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokio (...) ekintza judizialak egikaritzeko, atzera egiteko, amore emateko edo transakzio judizialak egiteko ebazpen-proposamenak.

Horrenbestez, zerbitzu juridikoa eskaintzeko "hitzarmen" bat sinatzeak kolokan jar dezake "zerbitzuaren erakunde onuradunaren funtzioak" erabat erabiltzeko eskubidea. Hau da, Zerbitzuari prerrogatiba horiek aitortzen dizkion hitzarmen edo kontratu orok erabakitzeko ahalmena emango lioke hari. Erakunde publiko batek ezin dio uko egin, ezta administrazio arteko hitzarmen bidez ere, bere eskumenak guztiz gauzatzeari eta, beraz, ezin izango lioke uko egin horiek eragiten duten defentsa juridikoari.

### **H. Administrazio instituzionalaren eta tokiko erakundeen erabakitzeko gaitasuna**

**31.** 7/2016 Legearen arabera (2.3. artikulua), Zerbitzuak bere jarduerak beteko ditu Administrazio Orokorrari, administrazio instituzionalari eta sortze-legean hala jasoa duten erakunde publikoei dagokienez.

Dekretu-zirriborroak zehazten duen moduan, zerbitzu juridikoak egindako lanaren hartzaileak izango dira "laguntza juridikoaren barneko eginkizunak hornitzeko erabakimen osoa edo partziala eurentzat erreserbatuta ez duten organismo autonomo eta zuzenbide pribatuko erakunde publiko guztiak", horrela, Lege esparrua gaindituz<sup>34</sup>.

**32.** Dekretuaren idazketa horrek behar bezala ezartzen du Eusko Jaurlaritzako abokatuek beren zerbitzuak eskaini behar dizkietela bere sortze-araudian aukera hori salbuespen gisa ezarri ez duten erakunde **guztiei**. Horrela, Eusko Jaurlaritzak eskainitako zerbitzu jakin bat kontrata dezatela ezartzen zaie administrazio instituzionaleko erakundeei, kontraprestazio ekonomiko baten truke eta kontratatutako zerbitzua erabakitzeko eta prestazio-baldintzak negoziatzeko gaitasuna kenduz.

---

<sup>34</sup> Legearen arabera (2.3. artikulua), Zerbitzuak laguntza juridikoa emango die (...) administrazio instituzionalari eta sortze-legean hala jasoa duten erakunde publikoei.



Arauketa horrek eragindako erakundeen autonomiarik ezak, zerbitzu juridikoen merkatuaren eskaera-zati bat murrizteaz gain, erabakitze gaitasuna kenduko lieke horiei, beren eskumenak gauzatzeko orduan.

**33.** Udalerriei edo foru aldundiei eskaini beharreko zerbitzu juridikoen kasuan, gaitasun hori Espainiako Konstituzioaren 140. artikuluan aurreikusitako tokiko autonomia-printzipioarekin bat datorren ala ez hausnartu behar da.

Dekretuak erreklamazio judizialen aurkezpenari eta auzien estrategia prozesalari dagozkion erabakiak hartzeko eta horiek bideratzeko eskumena esleitzen dio zerbitzu juridikoari (Dekretu-proiektuaren 4.3. artikulua). Dekretuak zerbitzu juridikoari esleitzen dizkion erabakiak hertsiki lotuta daude tokiko erakundeei esleitutako eskumenekin.

Aurreikuspen horren arabera, Zerbitzuak ez dagozkion erabakiak bereganatuko lituzke, erakunde horiek dituzten eskumenen erabateko jarduera eraginkorra zalantzan jarriz.

**34.** Gainera, Dekretu-zirriborroak zabaldu egiten du Zerbitzuak beren sortze-arauetan funtzio hori erreserbatu ez duten erakunde guztiei dagokienez duen derrigorrezko jarduna. Horregatik, dekretuak Zerbitzuaren bezero-espektroa areagotzen du berriz ere, *contra legem* interpretazio bat eginez.

#### **IV. Eragindako beste merkatu batzuk**

**35.** Zerbitzu juridikoak merkataritza-sozietateentzat, fundazio publikoentzat, partzuergoentzat eta Eusko Jaurlaritzaren partaidetza jasotzen duten eta bere produktuak edo zerbitzuak merkatuan eskaintzen dituzten beste erakunde batzuentzat lan egiten badu, erakunde horiei beren lehiakideek ez duten prestazio bat hornituko litzaieke.

Horrela, administrazioak esku hartu izan ez balu bereganatuko ez luketen abantaila baten onuradun izango lirateke, eta hori erakunde horiek beste batzuekin lehian jarduten duten merkatu guztietan gerta daiteke.

Txosten honetako 7. lerrokadan jasotzen den taulan egiazta daitekeen moduan, asko dira ondorio negatibo horiek planteatu daitezkeen merkatuak.

**36.** Zerbitzuak eragile jakin batzuei babesa emateak eragina izan dezake lehiatzeko neutraltasunean.

Lehiatzeko Neutraltasun Printzipioaren arabera, erakunde bakar batek ere ezin izango du onurarik edo kalterik jasan haren titularraren izaera publikoa edo pribatua dela eta. Hau da, enpresa publikoek jarduera ekonomikoak gauzaten





dituztenean, horiek beste enpresa batzuekiko inolako abantailarik edo desabantailarik gabe egin behar dira, horiek publikoak nahiz pribatuak izan<sup>35</sup>.

Gobernuko abokatuek merkatuan jarduten duten erakunde batzuei zerbitzua eskaintzeak eta beste batzuei ez eskaintzeak nabarmen aldatzen du beharrezko neutraltasun hori, eta, beraz, diskriminazioa eragiten du eragileen artean, baita lehiarekin lotutako arazoak ere.

**37.** Gainera, zerbitzu horrek erakundeei abantaila ekonomiko bat sortuz gero, zerbitzua eskaintze hutsa estatuko laguntza gisa hartu ahal izango litzateke, betiere kontzeptu hori onuradunak ekarpen ekonomiko bat jasotzen duenean bakarrik aplikatzen ez dela kontuan hartuta, baita karga bat askatzen zaionean ere.

Zerbitzuaren eraketak eta finantziazioak dituen ezaugarri bereziak direla-eta (funtzionarioek osatzen dute batez ere), ezin da aurreikusi –eta beharbada ez luke inolako zentzurik izango– ustezko etekina eta, beraz, merkaturako baldintzetan eskaini den zerbitzuaren prezioa kalkulatu denik aurreikusi, eta horrek modu barkaezinean aldatzen du sistemaren funtzionamendua<sup>36</sup>.

**38.** Zerbitzuak bere zerbitzu juridikoak eragile ekonomikoei eskaintzeak **interes-gatazkarekin** lotutako arazo larria sorraraz dezake.

Merkataritza-sozietateei zerbitzuak eskaintzeak bere jatorrizko helburutik urruntzen du Zerbitzua, haren jatorrizko helburua interes orokorra babestea baita, hark bere bezeroaren interesak defendatuko bailituzke, abokatu guztiek legez egiten duten moduan. Horrek Zerbitzuaren interes orokorreko defentsa-pizgarriak aldaraz ditzake, haren berezko funtzioari kontra eginez<sup>37</sup>.

Interes-gatazka hori ager dadila baimentzea guztiz kaltegarria da interes publikoaren ikuspuntutik.

<sup>35</sup> ELGA. *Competitive neutrality and state-owned enterprises: Challenges and policy options*. France, 2011ko maiatzaren 1a. Hemen eskura daiteke: [http://www.oecd-ilibrary.org/governance/competitive-neutrality-and-state-owned-enterprises\\_5kg9xfqjdhg6-en?crawler=true](http://www.oecd-ilibrary.org/governance/competitive-neutrality-and-state-owned-enterprises_5kg9xfqjdhg6-en?crawler=true).

<sup>36</sup> EUROPAKO BATZORDEA. *Batzordearen Jakinarazpena, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoaren araberako estatu-laguntzari buruzkoa* (2016/C 262/01).EBAO C 262/1, 2016ko uztailaren 19koa. Hemen eskura daiteke: [http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52016XC0719\(05\)&from=ES](http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52016XC0719(05)&from=ES).

<sup>37</sup> Ikus gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 25. artikulua eta hurrengoak. *BOE*, 295. zk., 2013ko abenduaren 10ekoa. Hemen eskura daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2013-12887>.



39. Horregatik, Jaurlaritzak edozein merkatutan jarduten duten erakundeei zerbitzu juridikoak eskaintzeak lehiatzeko neutraltasunaren eta interes orokorraren kontrako ondorioak eragiten dituela ondoriozta genezake, lehia askea kaltetzeaz gain.

## V. Gastu publikoaren eraginkortasunarekin lotutako hausnarketak

40. Estatuaren ekonomiako parte-hartzea honako bi printzipio hauetan oinarritzen da: **interes publikoarekiko** eragina eta **lehia askearekiko** errespetua. Bi printzipio horiek elkarrekin lotuta daude berez eta ezin dira banandu. Administrazioak bere enpresa publikoen jardueretan bi baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko gai izan behar du uneoro, haien existentzia eta jarduna justifikatzeko<sup>38</sup>.

41. Txosten honetan egiaztatzen den moduan, eta auto-antolaketa-rako gaitasuna erabiliz, Zerbitzuak ordezkari-tza eta defentsa juridikoa eskaini ahal izango dizkio administrazio orokorrari.

Dena den, arestian aipatutako printzipioek ez dute eraginik izango Zerbitzuak Dekretu-zirriborroak hirugarren gisa izendatzen dituen horiei erantzuten dienean.

Dekretuaren izapidetze-prozesuko memoria ekonomikoan, motibazioa oso eskasa da eta ez da diru publikoaren gastuaren eraginkortasuna frogatzen. Ez dira Zerbitzuak kobratuko dituen prezioak aipatzen, eta ez da azpikontratazioaren kostuarekin edo gastuarekin lotutako aurreikuspenik egiten.

Zerbitzuak eskatzen dituztenen kopuru altua dela-eta, memoria ekonomikoak ez du argitzen haren analisia bezero berriak izango direnei edo gaur egun harremana duten erakundeei dagokien.

Era berean, ez da urtean egitea aurreikusten den jarduketa-kopurua kuantifikatzen, ezta lortu ahal izango liratekeen diru-sarrerak eta horrek Araubide Juridikoaren Sailburuordetzaren lan-bolumenean izan lezakeen inpaktua ere.

---

<sup>38</sup> LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA. *Lehiaren Euskal Kontseiluaren txostena, Euskotrenek lehiaketa publikoetan enpresa pribatuekin lehian parte hartzeari buruz Bizkaiko Batzar Nagusiak egindako kontsultari dagokiona*. Bilbo, 2013ko maiatzaren 31. [http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es\\_informes/INFORME%20JJG%20BIZKAIA%20web.pdf](http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/INFORME%20JJG%20BIZKAIA%20web.pdf).



Gainera, memoriarekin batera ez da gehitu benetako eskaerari eta egon daitekeen eskaintzari buruzko merkatuko azterketarik, ezta horiek lehiarengan izan ditzaketen ustezko ondorioak ere.

Memoria horretan, gaur egungo zerbitzu juridikoaren kostua bakarrik kuantifikatzen da, 2015eko aurrekontu-ekitaldian jasotako Araubide Juridikoaren Sailburuordetzarako datu ekonomiekin (2.612.764 €). Gastu horiek gaur egungo zerbitzuaren egiturari eta langileei dagozkien gastuak gaineratzen dituzte. Era berean, ordaindutako kostuei (302.239 €) eta kontratatutako kostuei dagozkien gastuak (185.489 €) gaineratu dira memorian.

Ez dira minutak kalkulatzeko irizpideak argitzen –erakunde kontratugileek ordaindu beharreko urteko zenbatekoa zehazteko balio dute–; ez du lan egitea aurreikusten den kasuen kopuruari eta bolumenari buruzko aurreikuspenik egiten; bezeroek ordaindu beharreko zenbatekoaren kalkulua zehazteko kasuen "garrantziari" erreferentzia egiten zaio, betiere garrantzi ekonomikoari, eragindako lan-orduei, konplexutasunari edo beste inplikazio batzuei dagokien zehaztu gabe.

Horrenbestez, memorian ez da aurreikusitako egoeraren azterketa egiten, aurreko egoera islatu baizik, eta horrek ez du zerikusirik proposatutako aldaketekin.

**42.** Horrela, bada, Erregelamenduan aurreikusitako aldaketak merkatuan eragingo dituen aldaketen behar bezalako azterketarik egiten ez duela ondoriozta genezake.

Ez dago zerbitzu juridikoari merkatuan parte hartzea ahalbidetuko dion kalkulua sistemarik, haren zerbitzuak hornitzaile pribatuen berdintasun-printzipioetan eskainiz (horrenbestez, zerbitzuak ezin izango du abian diren lizitazioetara aurkeztu zerbitzu pribatuarekin), eta, era berean, ez da frogatu bere zerbitzuak administrazio instituzionalari edo beste administrazio batzuei eskaintzeak eraginkortasuna eragiten duenik.

## **VI. Txostenen bitartez, erregulazio onaren printzipioak aholkularitza juridikoari dagokion funtzioan txertatzea**

**43.** Dekretuaren II. kapituluak aholkularitza juridikoaren funtzioa arautzen du txostenen bitartez.

Espainiako Konstituzioko 31.2 eta 38. artikuluek baliabide publikoak modu eraginkorrean erabiltzeko eta produktibitatea sustatzeko **agintzen** diete botere publikoei. Gainera, honako hau dio 103.1. artikulua: "Administrazio publikoak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-



hierarkia-, deszentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera dihardu, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez".

Agindu hori betetzeko, administrazioek ikuspegi ekonomiko bat gaineratu behar dute beren eguneroko jardunean, eta esku-hartze publikoak merkatuan nola eragiten duen aztertu behar dute, betiere lehia askearen printzipioak uneoro errespetatzen direla bermatuz.

EAEko Administrazioan modu publikoan jarduteak merkatuan izan dezakeen eraginari buruzko azterketa honek presente egon behar du zerbitzu juridikoak aholkularitza juridikoa gauzatzean egindako txosten guztietan –9. artikulutik 13. artikulura aurreikusten dira–.

**44.** Dekretuaren 10. artikulua txostenen igorpena aurreikusten du izaera orokorreko arauak prestatzeko prozeduretan, eta 2. atalean haren helburua zehazten da.

Horrez gain, beste atal bat gainera dadila gomendatzen da, eta, bertan, zerbitzu juridikoak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 129. artikuluan aurreikusitako erregulazio onaren printzipioak errespetatzen direla aztertu behar duela gaineratuko da.

**45.** Era berean, administrazioaren esku-hartzea baloratzeko irizpide horiek txertatu beharko lirarteke txosten hori egiteaz kasuan kasuko saileko aholkularitza juridikoak arduratzen direnean. 13. 6. artikuluko aurreikuspen hori Eusko Jaurlaritzaren eta honako hauen arteko hitzarmenei dagokie:

- Partikularrak edo pertsonifikazio-modu pribatuan eraturako erakundeak, partaidetza publikoa duten merkataritza-sozietateak barne (a),
- Unibertsitateak (b),
- Erakustazokak eta oinarri pribatuko korporazio sektorialak, hala nola profesionalen elkargoak eta merkataritza-, industria- eta nabigazio-ganberak (c).

Hitzarmen horiek bereziki korapilatsuak dira lehiaren ikuspuntutik, alderdiek beren jarduketarekin merkatuko baldintzetan eragiteko duten gaitasunagatik, hain zuzen ere. Mota horretako erakundeekin hitzarmenak egiterakoan, administrazio publikoak errespetu osoz jokatu behar du lehiaren neutraltasun-printzipioarekin.

Enpresa-talde jakin bati lehia arloko abantaila eskainiz gero, hitzarmen horiek estatuko laguntzen ikuspuntutik baloratu behar dira<sup>39</sup>.

<sup>39</sup> Estatuaren laguntzek merkatuan duten eragina aztertzeko, estatuaren laguntzei buruzko CNMCren txostena erabili daiteke (Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala). *Informe Anual de Ayudas Públicas*. CNMC, 2016. Webgunea: <https://www.cnmc.es/2016-12-30-la-cnmc-publica-el-informe-anual-de-ayudas-publicas-de-2016-353499>.



## VII. Ondorioak

**LEHENENGOA.** Dekretu-zirriborroan aurreikusitako erregulazioak **zerbitzu juridikoen merkaturi** eragiten dio EAEn, hura justifikatuko duen merkaturako akatsik gabe eta murrizketa hori interes orokorreko helburu bat lortzeko beharrezkoa dela frogatu ez bada ere.

**BIGARRENA.** Zerbitzu juridikoak Dekretu-zirriborroan arautzen den moduan eskaintzen badira, Eusko Jaurlaritzak Estatuko eta Europako lehiaren legedipean jarduten duen **eragile ekonomiko** baten gisa jardungo luke Zerbitzu Juridikoaren bitartez.

**HIRUGARRENA.** Dekretu-zirriborroak **hitzarmen** deitzen die kostubidezko kontratuei.

**LAUGARRENA.** Zerbitzuak kanpoko abokatuak **azpikontratatzeko** dituen aukerak direla-eta, Sail hori bitartekari bihurtzen da aholkularitza juridikoko zerbitzua eskaintzen eta eskatzen dutenen artean, premiak eta eraginkortasunak inola ere barne hartzen ez dituen hainbat ondorio negatibo sortuz.

**BOSGARRENA.** Dekretu-zirriborroak kosten tasaketa-proposamenak eta minutak egiteko sistema bat ezartzen du Zerbitzuak "abokatutzaren jarduera profesionalaren ordainsariak arautzen edo **orientatzen dituzten arauetan**" oinarrituta jarduten duen kasuetarako, eta hori aipatutako jurisprudentziaren kontrakoa izango litzateke, haren arabera, ordainsarien baremoak lehiaren arau-hauste gisa hartzen baitira, eta, beraz, nuluak izango lirateke zuzenbide osoz.

**SEIGARRENA.** Zerbitzu juridikoak merkataritza-sozietateentzat, fundazio publikoentzat, partzuergoentzat eta Eusko Jaurlaritzaren partaidetza jasotzen duten beste erakunde batzuentzat lan egite hutsak lehiaren neutraltasun-printzipioa eta armen berdintasun-printzipioa urratzen ditu prozesuan, estatuko laguntza eragin dezake, abokatuak beren interes orokorraren defentsa-helburutik desbidera ditzake, beren bezeroen interes partikularrak defendatu behar dituztenean.

**ZAZPIGARRENA.** Arauak Zerbitzuari aitortzen dizkion prerrogatiba materialak direla-eta, hark erabakiak hartzeko gaitasunak beretzat hartzea eragin dezake,



beste administrazio edo erakunde instituzional batzuen erabakitzeko beharrezko autonomiaren kontrako prozedura judizialean.

**LEHENDAKARIA**  
**MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA**

**IDAZKARIA**  
**ALFONSO GOMEZ FERNANDEZ**

**KIDEA**  
**NATIVIDAD GOÑI URRIZA**

**KIDEA**  
**RAFAEL ITURRIAGA NIEVA**